





jaietan
euskaraz

kiroletan
euskaraz

gure!
artean!
euskaraz



Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

HERRIRIK HERRI >



Durangarrek pozik hartu dute trenaren lurperatzea.

Trena lur azpitik doa Durangon

Durango eta inguruetako herritarrek hainbeste urtean itxaron duten proiektua errealitate bihurtu da. Astelehenen trena lur azpitik joaten hasi da Durangon. Durangoko eta Traña-Matienako geltoki berriek ateak zabaldu dituzte azkenean. Hiru urteko atzerapenagaz amaitu dituzte obrak. 2009ko abendurako aurreikusituzen hasieran trenaren lurperatzea. Urterik urte, hainbat arrazoi tarteko, obren atzerapena bizi izan dute herritarrek, bai eta aurrekontuaren igoera ere. 220 milioi euroko kostua izan du proiektuak.

Iñaki Arriola jarduneko garraio sailburuak legegintzaldi amaierako azken egunetan atera zuen prentsarako argazkia azpiegitura berrietan, inaugurazioetarako denbora barik. Tren garajeak

Durangotik Lebariora (Abadiño) 2013an lekualdatuko dituztela azaldu dute, gainera. Ika-mika politiko handia sortu dute obrek EAJ eta PSE-EEren artean. Obren lehenengo zatian Eusko Jaurlaritza jeltzaleen esku zegoen, eta bigarren zatia, berriz, sozialisten ardura pean. Elkarri egotzi diote obren atzerapenaren ardura alderdi biek.

Durango bitan zatitzen zuen trenbideak bertan jarraitzen du

Orain, trenak herrigunean libre utzi dituen lurrekin zer egin da gakoa

oraindik, baina dagoeneko isildu egin da barrerak bajatzerakoan entzuten zen soinua. Trenaren joan-etorriek sei pasabidetan sorrazten zituen auto pilaketak ere atzean gelditu dira. Orain, trenak herrigunean libre utzi dituen lurrekin zer egin da gakoa. Durango Operazioa izenagaz sortutako proiektuak Zaha Hadid arkitekto iraniarraren eraikuntza eta luxuzko etxebizitza dorreak aurreikusten zituen. Krisiak baina, gauza bakoitza bere lekuan ipini du.

Istripua Landakon

Urtarrilaren hasieran Landakoko geltokiaren ondoko pasabidearen inguruan 63 urteko emakume bat harrapatu zuen trenak. Istripu horrek trenaren lurperatzearen eta segurtasunaren inguruko gaia mahaigaineratu zuen. ■ J. G.

> KRISIA



Martxoaren 29an Durangon egindako manifestazioa alde zaharretik. Kepa Aginako

Sei urtean hirukoiztu egin da langabetu kopurua Durangaldean

Lan gatazkak eta grebak izan dira nagusi urte osoan zehar eskualdeko hainbat enpresatan

Durangaldea • Otsailean langabeziaren daturik gordinenak ezagutzera eman zituen *Anbotok*. Durangaldean, langabezia-tasa hirukoizteko bidean da. 2006an, krisia hasi aurretik, 1.292 langabetu zeuden eskualdean. 2012ko urtarrilean, berriz, 3.612 lagun zeuden lan barik.

Lan gatazka ugari sortu ditu krisiak, bai kaleratze, bai EREak tarteko: Oltza, Fosrok, Inyectametal, El Material Aislante, Pierburg, Abamotor, San Eloy, Iketz, WAT, Gruas Artetxe, eta abar dira horren adibide.

Murrizketen kontra

Madrilgo gobernuak ezarritako murrizketen kontra agertu dira sindikatuak. Aurtun, greba orokorrerako hiru deialdi egin dituzte. Martxoaren 29ko greba orokorra izan zen lehenengoa. Lan erreformaren kontrako protesta egunak Durangalde osoa geldiarazi zuela azaldu zuten sindikatu deitzaileek (ELA, LAB, CCOO, UGT, besteak beste).

Urteko bigarren greba orokorrerako deialdia sindikatu abertzaleek egin zuten. ELA, LAB, ESK, CNT, CGT, EILAS, Hiru eta

EHNE sindikatuak eta hainbat eragilek greba orokorra deitu zuten irailaren 26rako. Gehiengo sindikalak adierazi zuenez, grebak jarraipen ia osoa izan zuen Durangaldean. Elorrion eta Durangon ehundaka lagun bildu zen murrizketen kontra deitutako manifestazioetan parte hartuz.

Azaroaren 14an, berriz, UGTk eta CCOOk deitu zuten grebak jarraipen txikia izan zuen Durangaldean. Roberto Martinek (CCOO) azaldu zuenez, "langileen kolektiboak aukera bat galdu du kalera irten eta murrizketen aurka egiteko".

> LAN ISTRIPIUA

Behargin bat hil da Unamunzagan lan istripuan

Abadiño • Trokel bat aldatzen ziharduela makinak harrapatuta hil zen, azaroan, 54 urteko gizonezkoa. Lebario industriaguneko Talleres Unamunzaga enpresan gertatu zen istripua. Hildako gizonezkoa Arriandikoa (Iurreta) zen, gauregun Eibarren bizi zen arren. Hogei urtetik gora egin zituen bertan lanean, lankideek esan zuten.

Senide eta lagunei elkartasuna agertzeko eta lan istripua kritikatzeko, dozenaka herritar batu ziren ELA eta LAB sindikatuak deitutako kontzentrazioan. Enpresaren parean batu ziren. Kontzentrazioaren deitzaileen izenean ELAko Leire Herediak eta LABeko Ibon Zubielak egin zuten berba. Herediak gogoratu zuen dagoeneko 45 behargin hil direla lan istripuz Hego Euskal Herrian. Istripuaren ikerketa exijitu zuen, gero erantzukizunak eskatu ahal izateko. Zubielak ere ikerketa sakona egitea aldarrikatu zuen: "Langileek diotena da makina horrek ez zeukala neurri prebentiborik".



> HAUTESKUNDEAK

Iñigo Urkullu lehendakari berria, Durangotik Jaurlaritzara

Durangon bizi den Iñigo Urkullu da lehendakari berria

Durangaldea • EAEn bezala, Iñigo Urkulluren alderdia izan zen Durangaldeko alderirik bozkatuena, 11.597 botorekin. Hala ere, 2009ko hauteskundeetan baino 722 boto gutxiago jaso du. EH Bildu izan zen bigarren indarra, 10.710 botogaz. PSE-EE nabarmen jaitsi zen: 2009an 6.887 jaso zituen eta oraingoan 4.446, heren bat gutxiago. Alderdi Popularrak 477 boto galdu zituen.

Durangon bizi den Iñigo Urkullu jeltzaileak dagoeneko hartu du lehendakari kargua Jaurlaritzan. Hamargarren legealdiko

lehendakaria izango da, eta frankismoaz geroztik Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak duen bosgarrena. Bigarren bozketan hautatu zuten, gehiengo soilez. Hurrengo urteotan konpondu beharreko gai ugari izango ditu mahai gainean, krisia eta bake eta normalizazioa, besteak beste.

Durangaldeko beste ordezkari bik legelbiltzarreko eserleku bana eskuratu dute azken hauteskundeetan: EH Bildu koalizioako Dani Maeztuk (Aralar) eta Julen Arzuagak (Bildu).



> ESPAINIAKO BANDERA



Epaitegien aginduz, Elorrion Espainiako bandera ipini dute

Zaldibarren, Izurtzan, Mañarian eta Otxandion agiria jaso dute

Durangaldea • Udaletxeko atzealdea eta frontoira begirako horma batzen diren lekuan ipini zuten uztailean Espainiako bandera Elorrion, ikurriñaren alboan. Espainiako gobernu delegatuak jarritako salaketa baten ostean ipini zuen bandera udalak. Zaldibarren prozesu judiziala hasita dago; Izurtzan, Mañarian eta Otxandion ere jaso dute jakinarazpena.

Elorrioko Udalak duela urtebete jaso zuen gobernu delegatuaren abisua. Udalak ez zuen bandera ipini, eta ez zuen jus-

tizia arloan pausorik eman. Ana Otadui alkateak azaldu zuenez, "ondorioak zeintzuk izango ziren jakinda, epaitegietan dirurik ez gastatzea erabaki genuen". Mañartzean heldu zen sententzia; udala banderara jartzera derrigortzen zuen epaileak.

Ekainaren 25ean hamar eguneko epea eman zieten. Otadui esan zuen ikurriña plazan ipini eta omenaldi bat antolatzea dela bere asmoa. Azaldu zuenez, "badakit zein den nire bandera; ezin didate beste bat inposatu".



GEN **EROSKI**
GABONAK

-%30
TELEBISTETAN *
DESKONTU BONUETAN

ABENDUAREN
21 eta 22an

EZ AURREZTU ILUSIOAN AURREZTU EROSKIN

Telebistaren bat erosiz gero, hurrengo erosketetan EROSKI hipermerkatuetako edozein sailetan gastatzeko deskontu-bonuak lortuko dituzu.

Bonuak 2013ko urtarrilaren 2tik 31ra erabil ditzakezu, 40€-tik gorako erosketetan. Kontsultatu gainerako baldintzak hurbilen duzun saltokian.

Promozio honek balioa izango du abenduaren 23an ere, Kantabrian, Errioxan eta Nafarroan irekitako saltokietan.



Hipermerkatuak

zurekin

www.eroski.es/navidad

BERBA BITAN

URTARRILA

Abadiño• Eneko Zarra-beitia presoak lau eguneko gose greba egin zuen. Beste preso baten gurasoak besarkatzeagatik zigortu zutelako egin zuen protesta.

Durango• 63 urteko emakume bat hil zen trenak harrapatuta, hilaren 9an. Landakoko geroalekuaren ondoko pasagunean gertatu zen.

Durango• Hilaren 25ean Bautista Uribe EAE-ANVko gudari eta militantea hil zen. Otsailaren 5ean omendu zuten.

Elorrio• Udalak segurtasun protokolo bi sinatu zituen Ertzaintzagaz, gaueko zaintzarako eta genero indarkeria kasuetarako.

Iurreta• Udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu zuen aho batez.

Mallabia• Erregistroak euskaraz egiteko aukera ezarri zuten bake epaitegian.

Mañaria• Irisgarritasun Plana egiteko galdeketa egin zuen udalak. 167 herritarrek parte hartu zuten.

OTSAILA

Abadiño• Eneko Zarra-beitia presoari elkartasuna erakusteko martxa egin zuten Poitierseko kartzelara.

Abadiño• Hilaren 3an San Blas eguna ospatu zuten ehundaka feriazalek.

Durangaldea• Karabana solidarioak 22 tona elikagai batu zituen Tinduferako.

Durango• Bilgune Feministaren eskariz, udalak aho batez kritikatu zuen Paul Abasoloren indultua.

Elorrio• Proba epea amaituta, auzo-taxi zerbitzua martxan ipini zuen udalak.

Iurreta• Udalak herriko argiteria publikoaren ikerketa egitea erabaki zuen.

Zaldibar• Iñaki Gamindek herriko berbetaren inguruan egindako ikerketa interneten ipini zuten ikusgai.

> ERRALDE HILTEGIA



Erralde hiltegiaren itxieraren kontra egindako elkarretaratzea. Kepa Aginako

Erralde desaginda, 2,4 milioi euroko zorra ordaindu gura dute

Erralde zegoen lekuan zentro zibikoa eraikitzeko asmoa dute

Durangaldea• Erralde hiltegiako batzordea osatzen duten hamabost herrietako ordezkariak sozietatea desagiteko erabakia hartu zuten urrian. Enpresaren likidazioa zelan egin erabakitzeko batzordea osatu zuten. Honako hauek dira batzordea kudeatzen dihardutenak: Mikel Ansotegi Aulestiko alkatea eta Erraldeko presidentea (Bildu), Jesus Lekerikabeaskoa Ispasterreko alkatea

(EAJ) eta Jose Luis Navarro Abadiñoko alkatea (AI). Erralderen helburua elkartearen zorrak ordaintzea dela azaldu du Ansotegik. Ia 2,4 milioi euroko zorra du hiltegiak

Durango Udalak Erralde hiltegiaren eraikina zegoen gunean zentro zibikoa eraikitzea du helburu. Eraikina urtarilean botatzea aurreikusi dutela azaldu du hedabide batek.

> GAZTEEN LOKALAK

Lokalen ordenantza denen parte-hartzeaz

Durango• Gazteen lokalen ordenantzan eskatutako neurriak gehiegizkoak direla iritzita, lokalen 360 erabiltzailek baino gehiagok alegazioa aurkeztu zuten martxoan udalean. Ordenantza hori atzera botatu zuen udalak eta araudi berria osatzeko erabiltzaileen eta auzokideen iritzia jaso zituen. EHUko talde batek dinamizatu ditu batzarrak.



> ANTENAK

Telefonia antenen ordenantza onartuta

Durango• Telefoniako antenen lehenengo ordenantza ekainean onartu zuen udalak. Hala ere, araudi honek eztabaida piztu zuen udaleko alderdien artean. Antenek ustez pertsonengan eragin ahal dituzten kalteen inguruan sortu zen eztabaida. Hamar antena daude Durangon. Batek ere ez dauka jarduera-lizentziarik, eta hirigizako baimena bik bakarrik.



> AURREKONTUAK



Oposizioa EAJren aurrekontuen aurka

Durangaldea• Gobernu taldearen zirriborroa berandu aurkeztu izana –maiatzaren amaieran aurkeztu zituzten– eta enplegu, etxebizitza eta gizarte arloko beharrianak kontuan hartu ez izana kritikatu zuten oposizioko alderdi guztiek. Aurrekontuak onartu barik, aurreko urtekoa luzatu zuten. Inbertsio berriak eta udalak elkarrekin dituen hitzarmenak udalbatzarretik pasa beharko dira.

> HERIOTZA

Gabrielaren heriotza argitzeko laguntza

Durango• Maiatzaren 5ean Juan de Iciar auzoko leiho batetik jausi eta hil egin zen Gabriela Arosemena gaztea. Familiak eta lagunek laguntza eskatu zuten, lekukotzak jaso eta gau hartan gertatu zena argitzeko. Gizon bat atxilotu zuten, heriotzaren aurretik emakumea giltzapetzea leporatuta; ondoren, aske utzi zuten, epailearen aurretik pasatzeko zain. Baztertu egin dute hilketa izatea. Bere gorpua Perura, jaioterrira, eroan zuten.



> BASERRITIK PLAZARA

Birsaltzailerik ez baserritarren azokan

Durango• Baserritarren zapatueta merkatuan norberakeko itzita produktuak bakarrik saldu ahal izango dira. Datorren urtetik aurrera nekazaritza produktuen birsalmenda debekatuko dute zapatueta merkatuan. Horrela dio udalak behin betiko onartutako ordenantzak. 'Baserritik plazara' ekimenean batutako hainbat nekazariren kexak eragin zuen udala arautegi berria idazten hastea.

Zorionak eta urte barri on!

CENTRAL FORESTAL

40 urte baino gehiago Euskal Basoen zerbitzura



Smurfit Kappa
Nervión

Pinuarekin egin daitekeen paperik onena!

Jasangarritasuna bermatzen



ziurtagiriaren bitartez

Jai zoriontsuak pasau daizueztela opa deustuz!

> EUSKALGINTZA



Guka!-ko bultzatzaileetako batzuk, aurkezpenean. K. Aginako

Jaiak ere euskaraz bizitzeko elkargunea sortu da: Guka!

Euskalgintzako hainbat elkarte eta lagunek sortu dute Guka!

Durango • Aurtengo San Fausto jaietan nobedadea izan da Guka!. Euskalgintzan lanean dabilen hainbat elkarte eta pertsonak bultzatuta, elkargune berria sortu dute Txosnagunean. "Euskara darabilgunak, euskaraz bizi gura dugunak eta harremanak euskaraz egin gura ditugun pertsonak. Ez gara siglak, ez gara egiturak, ez gara estatistikak, pertsonak gara, Durangaldekoak eta Euskal Herrikoak". Horrela definitu dute euren burua Guka!-ren bultzatzaileek. Urteak daromatxate euskara herri-bizitzara ekarri guran,

eta oraindik ere, euskaraz bizitzeko lekuak berreskuratzeko ahaleginean dihardute. AEK, EHE, Ibaizabal eta Berbaro taldeak egin dute indarra gune berriaren sorreran.

Kurutziagan egon dira aurtengo txosnak, eta Guka!-k karpa propioa ipini du. Hainbat ekitaldi eratu dituzte, beti ere, euskararen bueltan. Hainbat euskaltzaleren artean egin dute muntaia, eta eredu beragaz osatu dituzte txandak eta lanak. "Euskaraz, lehenengo pertsona, pluralean" egin dute festa eta lana.

■ JAIAK

Kurutziaga kaleko auzokideen haserre, jaietan jazotakoaz

Durango • Aurtengo Sanfaustoetan Kurutziaga kalean egon dira txosnak. Jaiak hasi bezperan, haserre agertu ziren auzokideak, informazio falta egon ei zelako. "Udalak ez digu ezer esan, eta haserre gaude". Euren arabera, *Anboto* bidez eduki zuten kokapenaren berri. Eztabaida handia sortu zen, eta udalari gezurretan ibiltzea ere leporatu zioten.

Eztabaida jaietako gau batean lehertu zen, Kurutziagako bizilagun gazte bat gaixotu eta anbulantziaren beharra izan zuenean. Denbora asko eman zuten anbulantziak etxera ailegatzeko. Heltzean, baten batzuek ibilgailua pintatu zuten. Udalak ez zuen bere gain hartu atzerapenaren ardurarik, eta anbulantziak izandako erasoak gogor gaitzetsi zuen. Gaztearen amak, anbulantziak sartzeko arazoak izan zituela eta udaltzaingoak ez ziela lagundu azaldu zuen. Txosna batzordeak adierazi zuen inork ez ziela deitu egoeraz abisatzeko.



BERBA BITAN

MARTXOA

Durangaldea • Jantoki sozialaren proiektua onartu zuen Amankomunazgoak.

Durangaldea • Amankomunazgoak ehun enpresa aholkatuko ditu ingurumen araudia bete dezaten.

Durango • Bonbardaketa-
ren 75. urteurrena izan zen
hilaren 31n. Udalak egiletza
aitortzea eskatu zuen.

Durango • Gazteen lokalen
ordenantza eskatzeko, lokal
erraldi bat irudikatu zuten.

Durango • Udal eraikine-
tako amiantoak ikertzea era-
baki zuen udalak.

Elorrio • Txakurrentzako
bederatzi gune egitea pro-
posatu zuen udalak.

Elorrio • Tinduferra bidaia
egin zuten hainbat
elorriarrek, tartean 25
ikasle. Amgala herrian kirol-
gune bat eraikitzea bultzatu
zuten.

Iurreta • Orozketako auzo-
tarren kezken ostean, udalak
goi tentsioko argindar linea
urruntzea eskatu zuen.

Zaldibar • Castet elkar-
teko presidente izandako
Xabier Zabarteri azken agu-
rra egin zioten. Istripuz hil
zen.

GABONAK

2012-2013



ABENDUAK 10-24

- Gutun eta postal lehiaketa
- Erakustokien lehiaketa

ABENDUAK 21

- 20:00etan Herri bibliotekan Nagusientzako ipuin kontalaria

ABENDUAK 21

- "Olentzerori gutunak" Ibarretxe kultur etxean
- 10:30ean antzerki saioa:
- Txikientzako: "Mari Antzerki Taldea"
- 1.-4 mailak: "Olentzero eta katu miragarria", Kalika

ABENDUAK 23

- 10:00etan koplak abestuko dira etxez etxe. San Migel plazan

ABENDUAK 24

OLENTZERORI HARRERA

- 11:30ean kalejira trikitilariekin Amilburu plazatik frontoira. Baserritar jantzita etorri!
- 12:00etan Olaburuko frontoian, Olentzero izango dugu

ABENDUAK 26,27,28

- 12:00 - 14:00 / 17:00 - 20:00 Olaburu frontoian:
- Ume eta gazteentzako parkea (0-12 urte)
- Txikientzako ludoteka (puzgarri, kontsola, tailerrak,...)

ABENDUAK 28

- 12:00etan Ibarretxe K.E.ean, Umeentzako ipuin kontalaria: "Ixabel Millet", 5 urtetik gora
- 12:30ean, Gutun eta postal lehiaketaren eta Erakusleihen lehiaketako sari banaketa
- 18:30ean Musika saioa eta kalejira, Goiuriko Ama Elkartea

ABENDUAK 31

- PONI-PINa, Zelai zalditegian, 5-14 urte bitarteko umeentzat
- 10:00etan taldeen banaketa 10:30-13:00 Tailerrak Autobusa egongo da

URTARRILAK 5

- Iluntzean, Erregeen kabalgata herrian zehar. Ondoren txokolatea banatuko da



BERBA BITAN

APIRILA

Abadiño• Inigo Cabacas hil zuen ertzainaren karga piztu zuelakoan, herriko gazte bat atxilotu zuten. Gertatutakoa estali gura izatea leporatu zioten lagunek Ertzainzari.

Atxondo• Axperako bidea konpondu zuten auzo-lanean.

Berriz• Juan Ramon Iturri-za historialaria omendu zuten, hil zeneko 200. urtemugan.

Berriz• Hondakin organikoa aterik ate batzen hasi ziren 50 etxetan, konpostajea egiteko.

Abadiño• Saibiko bataila gogoratu zuen Barrizten kultur elkarteak.

Elorrio• EAEko alargunak batzartu ziren, mugimendua indartzeko asmoz.

Iurreta• Antzinako eztegua antzeztu zuten Orozketan. Urrian, DVDa kaleratu zuten.

Mañaria• Udalak UEMAn sartzeko erabakia hartu zuen, aho batez.

Otxandio• Udaberrijaian, gazteek limitaduaren jabetza jokoan ipini zuten Aramaiogaz.

MAIATZA

Atxondo• Ekoizpenaren %20 erre zuen suteak Cemo-sa enpresan.

Atxondo• Etxebarri jatetxea munduko 50 onenen zerrendan sartu zuten.

Berriz• 41 lagunek euren inguruko datu sekretuak argitzeko eskaera egin zuten udal-letxean, ezker abertzalearen legez kanpoko hautagaitzen harira.

Durango• “Okupazio ilegala” salatu zuten Fundifes enpresan. Gizon bat atxilotu zuten bertan sexu erasoa egotzita.

Durango• Eusko Jaurlaritzak merkataritzaren inguruan egindako ekitaldian, Xabier Zelaia hildako merkataria durangarra hartu zuten gogoan.

Garai• Ramon Zabaletaren omenezko asto-probak egin zituzten hilaren 19an.

Iurreta• 25 postugaz egin zuten lehenengo Kale Azoka. Eguen birik behin egitea erabaki zuen udalak.

Mallabia• Udala eta Euskaltzaindia herriko toponimia ikertzen hasi ziren.

Mañaria• Bitora eta Lucia Inzunza ahizpak omendu zituen udalak, faxismoaren aurka borrokatu zirenak oroitzeko ekitaldian.

> ETXE KALERATZEAK



Carmen Morales eta Jerry Okem Sendia elkarteko kideak dira.

Etxe kaleratzeak aplikatuz gero, udal fondoak erretiratuko dituzte

Durangon eta Berrizen udalbatzarrean hartu dute erabakia

Durangaldea• Etxe kaleratzeen aurrean neurriak hartzea erabaki dute Durangaldea udal bik. Durangok eta Berrizek esaterako, etxe kaleratzeren bat aplikatzen duten bankuetatik beraien dirua ateratzeko erabakia hartu dute.

Beraien etxeak galtzeko arriskuan daudela adierazi zuten Durangoko San Fausto auzoko bizilagun bik. Carmen Moralesek eta Jerry Okemek Sendia elkartearen dihar-

dute. Carmen senarrarengandik bananduta dago, eta gutxitasun psikiko bat duen alabagaz, etxea galtzeko zorian dago. Bankuagaz irtenbideren bat negoziatzen dihardu. Jerry Okem, berriz, Nigeriatik bizimodu hobeago bat topatzera etorri zen. Urte askoan beharrean jardun eta gero lan barik geratu denean hasi dira arazoak. Emaztea eta seme-alabak Nigeriatik ekartzeko plana bertan behera utzi behar izan ditu.

> GARRAIOBIDEAK

Semaforo eta autobus geltoki berriak estreinatu dituzte

Izurtza• Herria zeharkatzen duen errepidean proiektu nagusi bi gauzatu dituzte aurten: noranzko bietan autobus geltoki bana eraiki dute, eta botika parean semaforoak eta zebra-bidea egokitu dituzte.

Mañaria-Durango norabidean, botikaren parean eraiki dute geltokia. Kontrako norabidean, aldiz, plazaren ondoan. Plaza ondoko geltokia egiteko espaloizatia estutu behar izan dute, eta geltokiak lehen zegoen aparkalekuaren erdia baino gehiago hartzen du. Bi-bietako markesinak egiteko ardura udalak hartu du. Biltzean gordeta zituzten banku bi hartu eta horiei poliuretanozko egitura gehitu diete. Geltoki biak prest zeuden urri hasieran, eta harrezkero autobusek geltoki berriak darabiltzate.

Geltokien aurretik semaforoak ezarri zituen Aldundiak botika parean. Horrela, Izurtzatik Mañarirako espaloitik dabiltzanek bidea gurutatu dezakete, bai beste aldeko enpresetara joateko, bai eta autobus geltokira joateko ere.



> ETXEBIZITZAK

Herritarrekin erabaki dute etxeen egitura

Izurtza• Frontoi ondoko landan 14 etxebizitza egingo dituzte, eta herritarren iritzia kontuan hartu dute etorkizuneko bizilekuak definitzerako orduan. Besteak beste, bizilekuek izan beharreko gela kopuruari buruz galdetu diete herritarrei. Jasotako erantzunak kontuan hartuta, honela egin dute banaketa: zortzi bizileku hiru gelakoak izango dira, lau bizileku gela bikoak eta bi gela batekoak.

Udalak batzar irekia egin zuen ekainean, etorkizunean eraiki gura diren etxebizitzak kudeatzeko proposamen berria azaltzeko. Danimarkan oso garatuta dagoen kooperatiba sistema proposatu zuten. Eredu horren arabera, eraikina kooperatibaren jabetzakoa litzakete, eta bazkide bakoitzak etxebizitza baten erabilera-lagapena izango luke.

> ABIADURA

Autoen abiadura zelan gutxitu ezbaian

Izurtza• Uztailean Eusko Jaurlaritzaren Trafiko zuzendari Amparo Lopezegaz izandako batzarrean, Izurtzako alkate Luis Ballarinek berriro adierazi zion herriguneko irteeretan radar bana ipintzeko beharra. Eusko Jaurlaritzak erantzun zion ez dutela aurreikusten radarrak ipintzeko aukerarik.

Radar finkoen ordeztu, autoen bidezko kontrol mugikorrek egiten jarraituko dute. Neurri hori ez zaio nahikoa iruditzen Ballarini: “Aste batean egoten dira, eta hurrengo hiru hiletan, bat ere ez”. Beraz, Amparo Lopez eskatu zion Aldundiagaz hartu-emanetan jar daitezela, hiru erakundeen arteko batzar bat posible ote den aztertzeko. Lopez ados agertu zen. Harrezkero denbora joan da, baina udalak ez du ezelako berririk jaso.

> HEZKUNTZA



Umerri, ikasteko eta jolasteko espazioa

Garai• Haurren zaintza partekatzeak eta zaintza modu berriak bilatzeko sortu du familia-talde batek Umerri. San Migel eliza osteko etxean daude, eta martxoan ekimena azaldu zuen guraso batek: “Egitasmo zabala da, antzeko interes, behar eta kezak dituztenei irekita dagoena”. 2011ko urrian zabaldua, lehen pauso eta helburuen berri eman zuten: “Haurrak euren erritmoaren arabera haztea eta lasaitasun handiagoz eta presa gutxiagoz bizitzea”. Besteak beste, bertan ez ei daukate lekuri aurreiritziek, zigorrek eta sariek.

Umeak bezala, helduak ere hazteko gunea dela adierazi zuen gurasoak.

> LANAK



Gerediagatik doan bidea konpondu dute

Garai• Abadiñoko Gerediaga auzotik Garairako bidea aurten amaitu dute konpontzen. Lebarion A8 autobideko aldetak zein biribilgunea sortzeko lanek eragina hasi zuten obra, duela hiru urte. Izan ere, Garaiko Aiar-tzun-Goitia inguruan zabortegia edo soberakinen biltzea zabaldu zuten, obra horiei guztiei erantzuteko. Zabortegira bidean, egunean 108 kamioi inguru errepidetik igarotzea eskatzen zuten, eta oinezkoentzako zein zikloturistentzako segurtasuna bermatzeko helburuagaz hasi zituzten lanak.

Espaloia eraikita dago bere zati guztietan, eta ibilgailuen abiadura moteltzeko ezarritako sakanaguneak ere bai.

> IRISGARRITASUNA

Frontoiko aldagelak berriztu dituzte

Garai• Udalak frontoiko aldagelak konpontzeari ekin zion irailean. Aldagelak aspaldi-koak direla eta egin dituzte obrak; hezetasuna eta irisgarritasun falta izan dira arazo handienak. Ordezkariren arabera, hori zen herriko eraikin publikoetan irisgarritasuneko arauak betetzeko falta zen leku bakarra.

Hiru dirulaguntza lortuta garatu du udalak proiektua. Egitasmoak 106.700 euroko aurrekontua izan du, eta horren %95 dirulaguntzekin ordaindu dute. Bizkaiko Foru Aldundiak laguntza bi eman ditu, Azpiegitura eta Kirol Sailen bidez: 49.700 euro eta 25.000 euro. Gainera, Eusko Jaurlaritzak 32.000 euroko ekarpena egin du. Komunez gainera, teiltua, argiak eta uraren instalazioak ere berriztu dituzte obretan.

ZELAIETAKO ESKOLA

Datorren udan ekingo diete eskolako obrei

Abadiño • Ikastetxeko jantokia lepo beteta dagoelako, ikasturte honetan, bertan jateko leku barik geratu dira Zelaieta Herri Ikastetxeko zazpi ume. Bi eta hamabi urte bitarteko 252 umek bazkaltzen dute zentroan, baina ez dute gehiagorentzako lekurik.

Zelaietako eskola handitzeko lanak bere gain hartzeko konpromisoa agertu zuen Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak apirilean. Horrela azaldu zuen Navarro alkateak. Lanei noiz ekingo dieten, baina, hilabete batzuk geroago zehaztu dute.

Hezkuntza Sailak Zelaietako eskola handitzeko lanei ez diela 2013ko uda baino lehen ekingo adierazi zuen, ekaineko udalbatzar batean, Jose Luis Navarro alkateak. Jaurlaritzak obrak burutzeko dirurik "oraindik" ez daukala adierazi ziola azaldu zuen Jose Luis Navarro alkateak, Bilduren galderari erantzunez.

Eskolako jantokia eta gimnasioa handitzeko behar larria zegoela agertuz, Zelaietako eskolako gurasoek 2011ko abenduan argitaratu zuten gutuna da aurrekaria. Eskolaren egogragaz oso arduratuta agertu ziren.



PARTZUERGOKO KIDE

Ur Partzuergoan sartu da Abadiño Udalak

Abadiño • Martxoko ohiko udalbatzarren onartu zuten Abadiño Udalak Bilbako Bizkaia Ur Partzuergoko kide izatea. Udal gobernuak Abadiño Udalaren Independentzia eta EAJ alderdiek bozkatu zuten erabaki horren alde. "Ezin dugu gehiago jasan uraren kudeaketa gastuak udalak ordaintzea", azaldu zuen Jose Luis Navarro alkateak. EAJk "baldintza onak adostea lortu" dutela azpimarratu zuen. Bildu, oster, ez dago erabakiagaz ados: "Ez diogu herriarentzako onurarik ikusten Ur Partzuergoan sartzeari".

ATXARTEKO HARROBIAK



Proiektuaren kontrako helegitea aurkeztu zuen Abadiño Udalak.

Ez dute aurrera eroango Adif-en Atxarteko harrobirako proiektua

Proiektua bertan behera utzi du azaroan udal gobernuak

Abadiño • Martxoko udalbatzarrean galdetu zion Bildu udal gobernuari Atxarte eta Atxa Txikiko harrobi abandonatu eta Adif erakundeak egindako proposamenaren gainean. Adif enpresak Atxarteko harrobia izandakora "AHT eraikitze obretan sartutako lur soberakinak" botatzeko proiektua aurkeztu zuela, eta Abadiño Udalagaz proiektua gauzatzeko tramiteak hasiak zitue-

la salatu zuen Bildu. Proiektuaren kontrako helegitea aurkeztu zuen Bildu, Legebiltzarrean ekimen bi erregistratu zituen Aralarrek, eta proiektuaren kontra agertu ziren beste hainbat gizarte eragile ere. Udaleko Bildu eta EAJko oposizioaren adostasunik barik proiektuagaz aurrera ez zuela egingo adierazi, eta proiektua bertan behera utzi zuen azaroan, Alko udal gobernuak.

PEAJE BERRIA

Ekainetik erabilgarri Gerediagako peajea

Abadiño • Urtebeteko atzerapenagaz, ekainaren 23an zabaldu zuten 47 milioi euroko aurrekontuagaz burutu duten AP8 autobideko peaje berria, Gerediagan. Gerediaga-Iurreta tartean prezioagaz "gure herrietako biztanleak ekonomikoki kaltetuak" direla salatzeko mozioa aurkeztu du Bildu hainbat udaletan.



ERAIKINA

Traña-Matienako haur eskola berria zabalik

Abadiño • Urriaren 1ean estreinatu zuten Traña-Matienako Haurreskola berria. Lau ikasgelatan 42 umerentzako lekua dauka eraikin berriak, baina ikasturtea 30 umegaz inauguratu zuten. Uda sasoia aprobetxatu zuten Egoien enpresak eraikin berria egiteko, eta 496.806 euroko inbertsioagaz burutu dute.



BERBA BITAN

EKAINA

Abadiño • Presoen familiei diru-laguntzak emateko araudia onartu zuten aho batez.

Durangaldea • Durangaldeko Lanbide ikastetxeak 25. urteurrena ospatu zuen.

Durangaldea • Asturiasen 1987an erreskatelanean hildako lau bolondresak omendu zituzten.

Durangaldea • Bertako elikagaiak saldu guran Oizegin.com webgunea sortu dute.

Durango • Rubalcabak eta Lopezek Arrosaren jaia ospatu zuten Landako Gunean.

Mallabia • Udalak adierazi zuen konpostajearen aldeko apustua egingo zuela.

Mañaria • 40 herritarrek auzolanetan parte hartu zuten egin zituzten bideak konpontzeko.

Zaldibar • Lehenengo Trikitilari Eguna ospatu zuten hilaren 16an, trikitilari gazteek eratuta.

UZTAILA

Berriz • IV. Berdintasun Plana onartu zuen udalak. Parte hartzeko aukera bermatu gura zuten.

Durango • Liherr Gonzalez gazteak jarraipen aparatua aurkitu zuen autoan. Poliziaren susmoa zeukan. Salaketa ipini zuen.

Durango • Umeentzako jolasgune berria zabaldu zuten Tabira auzoan.

Elorrio • Inma Berriozabal preso gaixoa askatzea eskatu zuen Herrira mugimenduak.

Iurreta • Kofradien ohorezko presidentea, Gregorio Gorroño, hil zen hilaren 17an.

Mallabia • Ondarroarako autobus zerbitzua ipini zuten berriro.

Otxandio • Durangaldeko Ezpatadantzari Eguna ospatu zuten hilaren 14an.





INMOBILIARIA SAN FAUSTO, S.A.

parte har ezazu zozketan

PROMOZIO BERRIA TRAÑA-ERROTAN (Matiena)

2 eta 3 logelako udal etxebizitza tasatuak

174.600 eurotik aurrera

Tel.: 630 993 167 - 94 457 17 00

Informazio bulegoa obran bertan

www.sanfausto.es

Izen-ematea
2013ko
otsailaren
1a arte

GABONAK 2012-2013



OLENTZERO ETA MARI DOMINGI EGUNA

ABENDUAK 24, ASTELEHENA

Goizeko 09:30ean Olaketako plazan, auzoetara joateko

Arratsaldeko 17:00etan Olentzero eta Mari Domingirekin irteera udaletxetik. Ibilbidea: Udaletxetik probalekura.

Animatu eta baserritar jantzita etorri!

GABONETAKO HAUR-PARKEA

URTARRILAK 3, OSTEGUNA

Goizez: 12:00etatik 13:30era

Arratsaldez: 16:00etatik 20:00etara

Berrizburu kiroldegian



ERREGE EGUNA

URTARRILAK 5, LARUNBATA

Arratsaldeko 18:00etan erregeen kabalgata Komentutik Olaketako plazara joango da.

18:45ean probalekura helduko da.

Ondoren, txokolatea hartuko dugu

gabon zoriontsuak izan!



> HISTORIA ETA ONDAREA



Argiñetan ikusgai egon dira topatutako aztarnak.

Argiñetan, antzinako herrixkaren aztarnak ikertzen hasi dira

Azterketa arkeologikoa hasita, 2015erako amaitu gura dute

Elorrio • Udalak eta Aldundiak hitzarmena sinatu dute Argiñetako guneko arkeologikoari balioa emateko. Azterketa hasi dute, eta 2015erako amaitu gura dute. Orain arte ondorioztatu dutenez, herrixka bat egon zen Argiñetan Goi Erdi Aroan, duela hamar mende baino gehiago. Arkeologia Museo-ko ikerlariak ibili dira beharrean, eta San Adrian ermitaren goiko aldean aurkitu dituzte aztarnak. Antzinako etxe horien zutoi-

nekeragindako zuloengatik eta lurreko zirrikituengatik jakin dute nondik norako herrixka zen Argiñetakoa. Hainbat objektu ere aurkitu eta laborategian aztertuko dituzte, ekainean indusketen bigarren fasea hasi aurretik. Ermitaren behealdean antzinako kanposantu bat topatu dute ikerlariak. Berezia da, gainera, hilobiak harkaitzean zizelkatuta daudelako. Abenduan ikusgai egon dira aztarnak.

> EGOERA POLITIKO BERRIA



“Aldaketa historikoa” eta gero, elkarbizitza sustatu gura dute

Elorrio • Arantzazu Baketik Fundazioagaz lankidetzat hitzarmena sinatu zuen udalak otsailan, Elorrioren elkarbizitza eta “berradiskidetzeko kultura” sustatzeko. Alor horietan “lan handia” egiteko dagoela esan zuen Ana Otadui alkateak: “Elorrioren azken urteetan izandako zatiketak konpondu egin behar dira”. Jonan Fernandez Baketik-eko zuzendariaren ustez, udaletatik egin ahal den lana oso garrantzitsua da: “Azken hilabeteetan aldaketa historikoa bat egon da, eta sendotu egin behar da”. Hitzarmenaren ondorioz, hainbat mintegi eta tailer eratu dituzte aurretik.

> TRAFIKOA

Mainerrota auzorako autoen sarrera mugatu dute urrian

Otxandio • Udalak martxan duen Oinez prozesuak (Herri-ola egitasmoko parte da) oinezkoek lehentasuna duten espazio publikoak sortzea du helburu, eta motordun ibilgailuen herri-guneko joan-etorriak murriztea. Bide horretan, urrats berri bat egin dute aurretik: Mainerrota ibilgailuen sarrera mugatu dute. Urri hasieraz geroztik, asteburuetan Mainerrota auzoa zirkulazio mugatuko gunea da autoetarako. Zapatuan, 14:00etan altxatzen dituzte piboteak, eta asteleheneko 06:00etan jaisten dituzte. Astegunetan, oster, piboteak jaitzita egoten dira, eta auto guztiek zirkulatu ahal dute. Mainerrotarako zirkulazioa zelatik definitu jakiteko, herri batzarra deitu zuen udalak, eta bertan jasotako iritzia kontuan hartu zituzten plana osatzeko orduan.



> SUTEA

Atsekabea eta kezka, gazteen lokaletan

Elorrio • Errege egunez gazteen lokal batean sua piztu zen, eta ondorioz, 24 urteko gazte bat hil zen. Ertzaintzaren arabera, sua berez itzali zen, baina gaztea kea arnastuta hil zen. Festan ibili ondoren, lotan zegoen, auzorako joateko autoa hartu beharrean bertan atsedean hartzea pentsatu zuen-eta. Udalak bere atsekabea agertu zuen gertakariagatik, eta dolu-minak eman zizkien lagun eta senideei. Lokaletako gazteen segurtasunak kezkatuta, udalak herriko lokalak ikuskatzea erabaki zuen otsailan. Udal teknikariek lokalak bisitatu zituzten; udal araudia betetzen ote zuten jakin gura zuten. Ondoren, emaitzak ematean, adierazi zuten aztertutako hamabiti lokaletatik hiruk bakarrik zeukatelako su-itzal gailua, eta bakarrik sute-detektagailua. Hori ikusita, lokaletarako aparatua biak doan banatzea erabaki zuen udalak.

> EUSKARA



Lipdub erraldoia egin zuten euskararen erabileraren alde

Otxandio • Otxandio-ko Euskaldunen Ama-raune sarearen ekimenez, lipdub bat grabatu zuten ekainaren amaieran, euskararen erabilera sustatzeko kanpainari hasiera emateko. *Euskeraz bizi guredu!* lelopean, herriko elkarterik gehienak eta ehundaka lagun batu ziren grabaketara, antolatzaileen esanetan: “Ohiturak aldatzea ez da beti erraza, baina ilusioz eginda, posible da”. Ibilbidean zehar, eguneroko bizimoduan aurkitu ahal diren egoerak irudikatu zituzten: gurasoen eta seme-alaben arteko hartu-emanak, koadrilen artekoak, enpresetakoak... Euskaraz bizi ahal izateko, gogoa edukitzea funtsezkoa dela adierazi gura zuten. Santamariñetan estreinatu zuten bideoa. Euskaraz bizitzeko ohiturak eta gogoa zabaltzeko egingo dituzten ekintzen abiapuntua da lipduba.

> GARAPEN EREDUA

Herri Ola egoera berrira ekarriko dute

Otxandio • Herri-ola egitasmok Otxandio-aren arlo guztietako garapen ereduak definitzen du: kirol edo kultura arlokoa, etxebizitza politiken edo mugikortasunaren ingurukoa, parrandatasunaren edo energia subiranotasunaren gainekoa... Badira urte batzuk martxan ipini zutela, eta harrezkero, hainbat aurrerapauso eman dituzte. Hala ere, krisia hasi zenez, hona, errealitatea aldatzen ari da. Horregatik, martxan ipini dute Herri-ola egitasmok gainera hausnarketa prozesu zabal eta dinamikoa, eta prozesu hori herritar eta eragile guztien artean egin gura dute. Bide horretatik, herritarren iritzia jasotzeko 13 kafe-tertulia antolatuko dituzte: Herri-olako ildo estrategikoa bakoitzeko bat. Abenduan bost batzar egin dituzte.

BERBA BITAN

ABUZTUA

Abadiño • Estankoaren eraikinararen zati bat bota zuten udalak aginduta, egoera txarragatik.

Berriz • Herriguneko Wifi interneteko seinalea emititze-ko antenak ipintzen hasi zen udala.

Durango • Bizkaitar Argia izendapena jaso zuen udalak Aldundiaren eskutik.

Durango • Atletismo pistak konponketak egiten hasi zuten Amankomunazgoa.

Elorrio • Epaitegien aginduz Espainiako bandera ipini eta gero, udalak ikurriña ipini zuen plazako iturrian.

Izurtza • Herritar bati abisua eman zioten, uraren sareko konponketak oztopatu zituelakoan.

Mallabia • Gauez kaleko argiak amaitzen hasi zen udala, kontsumoa gutxituz faktura merkatu guran.

IRAILA

Abadiño • Iluntze dantza taldearen 30. urteurrena ospatu zuten hilaren 22an.

Abadiño • Posta bulego berria zabaldu zuen Correos-ek Traña-Matienan.

Atxondo • Ikastetxe berria inauguratu eta ludoteka ikastetxe zaharrera lekualdatu zuten.

Berriz • Herri antzerkia egin zuten irailaren 11n, frankismoaren biktimei gorazarre egiteko.

Mallabia • Lanpostuak sortzea sustatu guran, enplegu plana jarriko dute martxan Amankomunazgoak eta udalak.

Durandaldea • Bai Euskarari ziurtagaritari bultzada ematen hasi ziren.

Durandaldea • II. Ardi Jaia eratu zuten Gerediagak, Urkiola Landa Garapenak eta +Dendak elkarteak. Artzaintzaren balioa erakustea zuten helburu.

Durango • Elikadura ekologikoaren gaineko topaketa egin zuten Plateruena kafe antzokian.

Durango • Futbol zelai berriaren proiektua geratzeko eskatu zion oposizioak EAJri.

Otxandio • Mainondoko guraso elkarteak harreragela eratzeko erabakia hartu zuen.

Zaldibar • Olazar ingurua atontzeko auzolana deitu zuen udalak.

Zaldibar • Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia herri-herriekin osatzen hasi zen udala.

> BERRIZIKLATU



Azaroan auzolanean jardun zuten konposta garbitzen.

Herritarren eskura dago bertako hondakin organikoekin egindako konposta

Berriziklaturen lehen zikloa amaituta, kontainer marroia ipiniko dute egitasmoa zabaltzeko

Berriz • Udazken honetan, 15 tona konpostatera dituzte Berrizko konpostaje plantatik. Berriziklatu egitasmoaren barruan, atez ateko bilketagaz hasi ziren zabor organikoa batzen, eta lehen saiakeran 60 familiak, jatetxe batek, lau fruta-dendak, barazki denda batek eta Learreta-Markina eskolak parte hartu zuten.

Konpost poltsatxoak herritarrei zabaldu eta gutxira, egitasmoa bigarren fasea

hasi dute. Oraingoan, atez ateko bilketaz gainera, kontainer marroia ipiniko dute erabiltzaileen eskura, eta etxean, patata fekulazko poltsetan bildu ahal izango dute zabor organikoa, gero edukiontzi berezira botatzeko.

57 erabiltzaile berri

Fase berrian herritargehiagorengana zabaldu dute egitasmoa. Abendu hasieran egin

zieten deialdia herritarrei, eta 56 familia eta jatetxe bat batu dira ekimenara. Urta-rrilean egingo dute batzarra erabiltzaile guztiekin, eta orduan banatuko dituzte etxerako edukiontzi txikiak, fekulazko poltsak eta kontainer marroiko giltzak.

Zerbitzua martxan dagoenez, parte hartu gura duten erabiltzaile berriek edoniz izena eman dezaketela azaldu dute udal ordezkariak.

> ELKARTASUN EGUNA

3.426 euro batu dituzte Ibaialde ikastolari laguntzeko

Elkartasun Eguneko bazkarian 150 lagun bildu dira



Mallabia • Mallabiko kultur eta kirol elkarteak, beste hainbat eragilegaz eta udalagaz batera, Sartagudako (Nafarroa) Ibaialde ikastolari laguntzeko Elkartasun Eguna antolatu zuen martxoan. Nafarroako Gobernuak diru-sarrerak murriztu dizkio, eta ikastolaren egoera ekonomikoa larria da. Ekitaldian, guztira 3.426 euro bildu zituzten.

Egitaraua goizean jarri zuten martxan, umeentzako tailer eta jolasekin. Spinning saioan parte hartzeko aukera ere eskaini zuten plazan. Eguneko ekitaldi nagusian, bazkari herrikoian, 150 lagunek parte hartu zuten. Bien bitartean, haurrek horma-irudi erraldoi bat margotuko zuten, Ibaialde ikastolako ikasleei opari emateko. Arratsaldean, 17:00etan, haurrentzako herri kirolak antolatuko zituzten. Eguna borobiltzeko, The Frikis, The Mokers eta beste talde sorpresa batek kontzertua eskaini zuten. Ibaialde ikastolako gurasoak ere bertaratu ziren jaira.

Talde bat hilabeteetan dirua batzen ari zuten, tabernetan itsulapikoak jarri eta baserri baserri bonoak banatzen.

> HONDAKINDEGIA

Berrizburuko hondakindegia zigilatu dute

Berriz • Zarratu eta zigilatu egin dute Berrizburuko hondakindegia, barrura urik ez sartzeko, eta gai kutsakorrek izan ditzaketan libiazioak (kanporanzko filtrazio arriskutsuak) gerta ez daitezkeen. Hondakindegia martxan egon zen 14 urteetan 1.350.000 tona hondakin pilatu zituzten.

Ingurua berreskuratzeko lurra eta landaretza ipini dituzte, zati bat aisialdirako atonduta. Bizirik Betiko plataformako kideak jolasgunea ipintzearen kontra agertu dira: "Denbora batera lurra mugitzeko arriskua egon daiteke, eta bertan ezin da ezer urbanistikoa ez ludikorik eraiki".

> MUSIKA ETXEA

Lokal berrietan entsaiatzen hasi dira herriko taldeak

Berriz • Hamabi musika talde eta berrogei pertsona baino gehiago hasi dira Musika Etxeko lokaletan entsaiatzen. Udazkenean zabaldu dituzte lokalak, Iturritza kalean, mahaijokoak dauden plazaren azpian. Lau dira, eta komuna eta dutxa ere badauzkate.

Lokalen premia dela eta sortutako BREA Berrizko Rock Elkarateak kudeatzen du Musika Etxea. Asteko egun guztietan 10:00etatik 22:00ak arte dago zabalik. Lokalean batuta, musika taldeek azaldu dute gerorakontzertuak edota ikastaroak antolatzeko asmoa daukatela.

> ORTUAK ETA KONPOSTA

Ortu ekologikoak eta konposta bultzatu dituzte

Mallabia • Ortu ekologikoen proiektuak aurrera jarraitzen du Mallabian. Urrian auzolana antolatu zuen udalak, herri baratzak atontzeko lanekin jarraitzeko. "Horrelako proiektu bat martxan jartzeko, ahalik eta jende gehienaren parte-hartzeagaz errazago bukatuko ditugu lanak", azaldu zuen Mila Mondragon alkateak.

Bestalde konposta egin gura duten herritarrekin batzarra egin zuten azaroan. Konpostaren inguruko informazioa emateaz gainera, konpostadoreak banatu zituzten parte-hartzaileei.

ALCONADA AUTOBUSAK



Joan-etorriak sagardotegietara, ezteguetara, Errioxara, elurretara, leku turistikoetara...

Profesionalak gara lantegietarako, ikastegietarako eta kirol-taldeen partiduetarako joan-etorrietan. Mendi-taldeak ere eramaten ditugu.

Beti prezio hoberena!
Egin kontsulta, eta aurrekontua egingo dizugu.

www.autobusesermua.es

Tel.: 943 172 415 - 610 283 939 • info@autobusesermua.es - busalconada@gmail.com

Gure Kide

Albaitaritza klinika

Murueta Auzoa, 1
48220 MATIENA (Abadiño)
Tel.: 94 620 16 21
Larrialdiak: 655 88 14 22
www.gurekide.es

Medikuntza - Analisi klinikoa - Ekografia - Erradiologia
 Kirurgia - Ospitalizazioa - Ile-apainketa - Osagarriak



> URTEURRENA



Victor Basetak Rosa Elizburu alkateari eman zion sinbolikoki aginte makila.

Apata, Arrazola eta Axpe batu zirela 50 urte bete dira azaroan

Oroigarri bana ipini zuten udaletxeak izandako eraikinetan

Atxondo • Arrazolak, Axpek eta Apatak bat egin eta Atxondo udalerria sortu zutela 50 urte bete ziren azaroaren 4an. Hil horren amaieran urteurrena ospatzeko ekitaldiak burutu zituzten hiru auzoetan.

Sasoi batean udaletxeak izan ziren eraikinetan urteurrena gogoratzen duen plaka bana ipini zuten. Apatan, aurrekua dantzatu zieten alkate ohiei eta, segidan, Axpeko eta Atxondoko udalbatzarretan zinegotzi izandako Victor Basetak aginte makila eman zion Rosa Elizburu

gaur egungo alkateari. Hala, sasoi bateko ohitura berreskuratu zuten, eta aurretantzean, aginte makila eskuz aldatuz irudikatuko dute alkate aldaketa.

Baliabideak bateratzeko beharra 1962an Apatamonasterioko alkatea zen Claudio Urizarrek jarri zuen martxan fusioa. Hiru herriek banan baliabide ekonomiko urriak zituztela eta, bat egitea proposatu zuen. Batzorde berezi baten bidez bideratu zuten bateratzea.

IGERILEKUAK

Berandu baina isuria konponduta ireki zituzten igerilekuak

Atxondo • Urteetan arrastaka ekarri duen arazoa konpontzea lortu du aurten udalak. Ez kosta barik, halere. Jakina zen igerilekuek isuriren bat zutela eta nonbaitektik ura galtzen zutela etengabe. Horrek mantentze kostua nabarmen igotzen zuen. Udaletxeko brigadaren esku utzi zuten isuria non zegoen bilatu eta hura konpontzea. Azkenean, denboraldia hasi eta handik hamabost egunera ireki zituzten igerilekuak, baina matxura konponduta eta batere urik galtzen ez zuela.

Arazo hark beste gai bat plazaratzeko bidea eskaini zien: kanpoko igerilekuen kudeaketa komuna, erabiltzaileak dituzten udalerrien artean. Mantentzea partekatzea eta azpiegiturak optimizatzea zen helburua. Atxondok proposamena luzatu zion Elorrioko Udalari. Azkenean, haxe erabaki zuen Elorriok: Atxondora doazen erabiltzaileak diruz laguntzea.



ETXEBIZITZAK



Udaletxe ondoan zortzi bizileku eraikiko dituzte

Atxondo • Etxebizitzek zeresan handia eman dute aurten. Alde batetik, udaletxe ondoko zelaian —sasoi batean ludoteka zegoen parean— zortzi etxebizitza berri egingo dituztela iragarri du aurten udalak. Etorkizuneko bizileku horiek kooperatiba sistema baten bidez kudeatzea proposatu zuen udalak herri batzar batean. Lur zatia udalarena denez, espekulazioari ere aurre egingo liokete.

Bestalde, Barraskiko etxebizitzek ere argi berdea dute. Promotoreak ez zizkionez hitzartutako ordainketak egin, udalak ez zien eraikuntza hasteko baimenik eman. Horrela egon ziren luzaroan. Uztailean, zorrak epeka ordaintzeko akordioara heldu ziren udala eta promotorea. Hala, zor osotik (305.000 euro) lehenengo zatia ordaindu zuenean (120.000 euro) zati bat urbanizatzeko baimena eman zuten.





Mañariko
udala

ABENDUAREN 10ean
BERDINTASUN PLANAREN TOPAKETA
Tokia: Udaletxea. Ordua: 18:15. Hartzailea: emakumeak

ABENDUAREN 16an
BIGARREN ESKUKO AZOKA
Goizeko 11:00etan frontoiko ateak irekiko dira bertan erosketaren bat egin nahi duten guztientzat. Animatu eta etorri Gabonetako erosketak bertan egitera!!!!

ABENDUAREN 20an
AGENDA 21 TOKIKO PLANAREN EBALUAZIOA

ABENDUAREN 21ean
IPUIN KONTALARIA
Umeentzako ipuin kontalaria liburutegian arratsaldeko 18:00etan

ABENDUAREN 24an
OLENTZERO
Badator OLENTZERO! Arratsaldeko 18:00etan Mañariko kaleetatik igaroko da haurren gutunak jasotzeko! Andra Mari Dantza eta Abesbatza Elkartea

ABENDUAREN 26an
ESKOLAKO MATERIALA EROSTEKO DIRU LAGUNTZA
Abenduaren 26an bukatuko da diru laguntza hau jaso ahal izateko paperak aurkezteko epea. Oso garrantzitsua da paper guztiak eguneratuta eta epea bukatu aurretik aurkeztea.

ABENDUAREN 26tik 28ra
GABONETAKO TXOKOA

Gabon Zoriontsuak eta Urte Berri On.



> ASKONDO KOBAZULOA



Metro karratu bateko azterketari etekin handia atera diote Askondo koban.

Neanderthal sasoikoak dira Askondoko aztarna zaharrenak

Koban aurkitutako margoak duela 25.000 urtekoak dira

Mañaria • Azaroan eman zituzten jakitera Askondo kobazuloan 2010ean topatutako irudi eta aztarnen ikerketaren ondorioak. Topatu dituzten aztarna zaharrenak Neanderthalen sasoikoak dira, hain zuzen, haien erremintenak. Horrela azaldu zioten *Anbotori* Diego Garate eta Joseba Rios arkeologoek. Aurkitutako margoak, berriz, duela 25.000 urteko belaunaldi batek egin zituen, “agian

Kantaurialdean dauden antzeko leizeak noiz margotu ziren ere jakin ahal izango dugu”.

Metro karratu batean
Hori guztia metro karratu batean topatu dute: “Gurea zundaketa bat izan da, eta indusketazabal bat egiten bada, 6-8 metrokoa, ez dakigu zelan biderkatuko diren aztarnak”, zioen Garatek.

▣ HARROBIAK




Zalloventa harrobia amaiera fasean

Mañaria • Urrian hasi ziren Zalloventa harrobiko instalazioak kentzen. Harrobiaren zuloa betetzeko lana, berreskurapena, datorren urtean hasiko da. Hala jakin eragin zuen Eusko Jaurlaritzako harrobi eta energia zuzendari Jorge Letamendiak. Enpresa egitasmo hori diseinatzaren hasita zegoela aurreratu zuen: Zalloventako zuloa eta eremua betetzeko 300.000 metro kubiko material erabiliko dute. Markomin Goiakoa harrobia enpresa berarena da, eta hango soberakina aprobeztatuko ei dute.

▣ EUSKARA

Euskararen erabilera datuak azaldu ditu Soziolinguistika Klusterrak

Emaitzen arabera, hamar elkarriketetatik bi dira euskaraz



Zaldibar • Soziolinguistika Klusterrak 2011n buruturiko euskararen erabilaren ikerketaren emaitzen berri eman zuten urriaren 30eko batzarrean. Zaldibartarrek hamar elkarriketetatik bitan euskara darabiltela adierazten dute, besteak beste, datu horiek. Azterketa horren arabera, dakitenen erdiak erabiltzen du, Zal-

dibarren, euskara. Beste hainbat datu deigarri eta interesgarri ere eskaini ditu azterketa horrek: esaterako, gazteak direla euskara gehien erabiltzen dutenak: %28k darabil euskara. Iaz egin zuen Soziolinguistika Klusterrak azterketa, eta urriko batzarrean azaldu dituzte emaitzak eta ondorioak.

▣ PARTE-HARTZEA

50 ekarpen, 2013ko aurrekonturako

Mañaria • Udalak herritarren parte-hartzea-gaz osatu ditu 2013rako aurrekontuak. Inkestak eta batzarren bidez, mañariarren iritzia jakin gura zuen datorren urteko egitasmoak zehazten laguntzeko. Urrian ipini zuten martxan prozesua eta, guztira, herritarren 50 ekarpen inguru jaso dituzte. Endika Jaio alkateak ondo baloratu du prozesua: “Jendeari erakutsi gura genion badagoela aurrekontuak egiteko beste era bat”.

Hartara, 20.000 euro gorde dituzte herritarrek proposatutako ideiak garatzeko. Ez da, beraz, aurrekontu osoa definitu. “Demokrazia zuzenerako pauso bat da”. Azken asteetan herritarrez, kargudunetz eta teknikariez osatutako lan-talde bat ibili da ideiak aztertzen eta galbahea ipintzen. Besteak beste, liburutegi zaharrean botikina ipintzea, plazako jolasgunea konpontzea eta herriko hizkeraren gaineko bideoa egitea erabaki dute. elkar-lanean.

▣ INBERTSIOA HEZKUNTZAN

Haurreskolarako proiektu aukeratua

Zaldibar • Haurreskola berriaren proiektua aukeratzeko lehiaketa publikoa eta herri galdeketa egin ditu Zaldibarko Udalak. Guztira, 116 proposamen jaso zituzten haurreskolararen eraikuntzarako proiektua aukeratzeko deituriko ideia lehiaketa horretan.

Herritarrek gustukoen zuten eraikina aukera zezaten, erakusketa antolatu zuten epaimahai baten galbahea igaro zuten proiektuekin, eta euren iritzia eman zuten galdeketa parte hartu zuten 156 zaldibartarrek.

Hala, Urgari Estudio taldeak aurkeztu zuen proiektua aukeratu zuten haurreskola berria eraikitzeko.

Haurreskolan biomasa eta eguzki energia bidezko berogailu sistema ipintzea proposatzen zuen, besteak beste, Erandioko Estudio Urgari taldeak.



▣ BATZAR IREKIAK

EBPNren diseinuan ekarpenak jasotzeko

Zaldibar • Batzar ireki bi antolatu ditu udalak herritarrei Euskara Biziberritzeko Plangintzaren diseinuan parte hartzea proposatuta. Udalak datozen lau urteetan garatuko duen hizkuntza politika zehazterako orduan, herritarrek euren ekarpenak egin ahal izateko burutu dituzte deialdi zabal horiek.

Irailen eta urriaren egin dituzte batzarrok, “zaldibartar guztien bizipen, proposamen eta hausnarketak” batzeko asmoz.

Elhuyar Aholkularitza enpresak jardungo du aurrerantzean ere Zaldibarko Euskara Biziberritzeko Plana diseinatzeko prozesua dinamizatzen. Datozen urteetan euskararen normalizazioan egin beharreko lana zehazterakoan, udazkeneko batzar horietan jasotako ekarpenak izango dituzte oinarri.

BERBA BITAN

URRIA

Abadiño • Merkatariek lehenengoz ipini zuten Trafia-Matienan Aukera Azoka.

Berriz • Auzo-taxi zerbitzua martxan ipini zuen udalak, Zengotitabengoa kalean.

Durangaldea • Txema Serranok irabazi du Anboto-ko argazki lehiaketa.

Durango • Birsaltzaileak baserritarren azokatik kanpo geratzeko onartu zuen udalak, ordenantza berriagaz.

Durango • Emakume antifaxistak omendu zituzten *Agurrik gabeak* ekitaldian.

Elorrio • Aldatsekuan nagsientzako ariketa gunea ipini zuen udalak.

Iurreta • Rufino Jaio eta Jon Bikandiren abelburuak saritu zituzten Gernikan, urriko azken asteleheneko azokan.

Izurtza • Konpostajeari ekin zioten hainbat herritarrek, ikastaroen ostean konpost ontziak banatuta.

Mallabia • Enplegu Plana egitea erabaki zuen udalak, lanpostuak sortzeko.

Otxandio • Berdintasun Plana herritarrekin osatzeko bost batzar deitu zituen udalak.

Otxandio • Enplegua sustatzeko, egoeraren azterketa egiten hasi zen udala.

AZAROA

Durangaldea • *Guraso-lagun* sortu zuten, patio orduetan gurasoek euskaraz berba egiteko.

Durangaldea • Elorrioko Korleone taldeak irabazi zuen artista gazteen Izarren Distira lehiaketa.

Durangaldea • Amankomunazgoak BTT zentroa Abadiñon zabaltzeko egitasmoa hasi zuen.

Durangaldea • Sortu talde politikoa eratzeke eztabaidari ekin zioten.

Durango • Caritasek etxebakoentzako egoitza zabalduko zuela eman zuen jakitera.

Durango • Alberto Erraztik egindako ikerketa toponimikoa udaleko webgunean eskegi zuten.

Durango • ONA enpresari Irango programa nuklearrakozazpi makina bidali izana leporatu zioten. Enpresak ukatu egin zuen.

Iurreta • Larrakozelaiko bidea udalaren esku geratu zen.

Iurreta • Pakistani buruzko *Munduko paisaiak* ekimena garatu zuten, udalak eta elkarteek sustatuta.

BERBA BITAN

ABENDUA

Abadiño • Herrirak Elkartasun asteburua eratu zuen, preso eta iheslarien alde.

Berriz • Udal tramiteak Internet bidez egin ahal izango zirela adierazi zuen udalak.

Durungaldea • Gazteen artean drogen kontsumoa jaitsi egin dela erakutsi zuten Amankomunazgoaren inkestek.

Durango • Durangoko Azokaren 47. edizioan aurreko urteko datuak gainditu ziren.

Durango • Bidegorriaren seigarren faseari ekin zion udalak, alde zaharra eta Tabirra lotzeko.

Durango • JAED elkarteak 50. urtemuga ospatzeari ekin zion, ongintza zozketagaz.

Elorrio • Irakasleek hartu dute Lourdesko Ama ikastetxea.

Elorrio • Gobernu taldeak aurreratu zuen, 2013an hasi gura duela kanpoko igerilekuen obra.

Zaldibar • Idoia Mendiola-garai alkate jeltzale ohia hil zen 49 urte gaz, gaixotasun luze baten ostean.

> ABADETKEA



1999tik 2006ra artean lurretako Gaztetxea izan da Abadetxea. A. Ugalde

Abadetxea berrizteko lanak amaitu ditu Bilboko Gotzaindegia

Berrizte-egitasmoan 350.000 euroko aurrekontua izan du

Iurreta • Maiatzean hasi zituzten Abadetxea berrizteko lanak. Eraikinaren aurrealdea eta burdinezko balkoia berriztu dituzte, barne-egituraz eta teilatuaz gain. Erantsitako hormigoizko egitura ere bota dute, 350.000 euroko aurrekontua izan duen berrizte-egitasmoaren barruan. Lanak amaituta, Iurretako Udalak abiatutako hondamen espediente indargabe utzi du.

Bilboko Gotzaindegia otsailean eman zion obra baimena udalak. Abadexeari emango zaion erabilera, hala ere, ez du argi-

tu oraindik gotzaindegia, "parrokiako premei" erantzungo diela azaldu arren. Eraikina mantenduko delako oso pozik agertu zen Iñaki Totorikaguena alkatea ere.

Errehabilitazio osoa

Barne-egitura eta teilatua konpontzera mugatzen zen hasierako asmoa. Halere, errehabilitazio osoa beharko lukeela erantzun zion gotzaindegia udalak. Hartara, eraikinaren aurrealdea eta burdinazko balkoia ere jaso ziren berrizte-egitasmoan.

ERREFUSATZE INTZIDENTZIA



Alkateak jarraitzea izango du Goiuriko ibarbideen auzian

Iurreta • Iñaki Totorikaguena alkatea Lukupeko Troka eta Luku-txiki ibarbideak lurrez betetzeko jardura eta obra lizentzia espedientetik baztertzea eskatu du Goiuriko kofradiak. Alkatearen kontrako errefusatzetintzidentzia ekainean ebatzi zuten: alkateak erabaki ahalmena mantentzea. Kofradiak hori baliogabetzeko eskatu du, bestela, berraztertze errekurtsoa aurkeztu edo administrazio epaitegiara joko duela iragarrita.

24 URTEAN ABADE

Omenaldia egin diote Jon Onaindiari

Iurreta • Irailean jubilatutako arren, oraindino meza ematen du Jon Onaindiak. "Zerbitzatua izatera baino, zerbitzatza etorria", oso pozik egon da Iurretan: "Estimatzeko naute eta denekin ondo konpontzen naiz". Markinan jaio eta Azkainen bizi izandakoa, Hego Amerikan ere ibili da misiolari. Elizak eta herriak omenaldia egin zioten abenduaren 2an, 24 urtean abade izan dutenari.

GABONAK 2012-2013 EGITARAUA

ABENDUAK 22 LARUNBATA

Amama Iñaxiren ipuina
Tokia: Mallabia I Kirol Etxea
Ordua: 19:00etan
Parte-hartzaileak: Jasokunde eta Mendibil abesbatzak eta dantzariak

ABENDUAK 23 IGANDEA

Baserriz baserri Jasokunde
Abesbatza gabon kantak kantatzen, goiz eta arratsalde

ABENDUAK 24 ASTELEHENA

Olentzero Mallabira dator!
Tokia: Plaza
Ordua: 19:00etan
Antolatzaileak: Izar Gorri K.E.

ABENDUAK 26, 27, 30 URTARRILAK 6

Zinea, Kultur Etxean
26, 27: 18:30etan
30, urt.6: 17:00etan
Antolatzailea: Futbito taldea

ABENDUAK 28 OSTIRALA

Haur parkea
Tokia: Mallabia I Kirol Etxea
Ordua: 11:30-13:30
16:30-19:30

ABENDUAK 31 ASTELEHENA

Trikipoteoa tabernetan
Ordua: 19:30etan
Antolatzailea: Orraitio Euskara Elkartea

gabon
zoriontsuak
izan!



KULTURA >



Kriskitinen 25 urteak dantzan ospatzeko

Ekainean ospatu zuten Kriskitinen 25. urteurreneko goiko argazkiko “dantza saio erraldoia”. Taldeko gaureguno dantzariak, musikariak eta laguntzaileak eta 25 urteotan taldeko kide izan diren lagunak elkartu ziren ekitaldi hartan. Ehun dantzaritik gora aritu ziren, Durango-ko Andra Mariko emanaldian. Egoitz Esturo taldekideak azaldu zuenez, “taldeak 25 urteotan bizitzako eboluzioa, mende laurden honetako lana” islatu gura zuten Andra Mariko ekitaldian.

Joan zen zapatuan, Platerue-
nean egin zuten jai giroko Kriskitin Eguna, eta horregaz eman dute 25. urteurrenerako antolaturiko egitaraua amaitutzat. Kalejiran, bazkaritan, eta erromerian batu ziren joan zen zapatuan, dantza-
ri eta dantzazaleak.

Kriskitinek 25 urte liburua ere argitaratu dute aurtan. Durango-ko udal liburutegian aurkeztu zuten talde lanean prestatutako liburua, “taldearen 25 urteotako historia gal ez dadin” kaleratutakoa. Ikuskizunen inguruko azalpenak, anekdotak, argazkiak eta bizipenak jaso dituzte liburu horretan, 1986 eta 2012 arteko taldearen ibilerak kontatuz.

Tradizioa baztertu barik, “berrikuntzari tartea zabaltzea” da, Marisa Barrena taldekideak liburuaren sarreran esaten duenez, Kriskitin taldearen helburua.

Kulturartekotasunaren garra-
tziak ere jakitun izan da, Kriskitin, sortu zutenetik. Horregatik, euskal dantzak beste herri batzuetara eramane dituzte, eta kanpokoak Durangora ekarri. Abenduaren 29rako antolatu du Kriskitinek

Ekainean ospatu
zuten Kriskitinen
urteurreneko
dantza saioa

aurtengo Durangon Folk: Platerue-
nean dantzatuko dute Kantabria-
ko Virgen de las Nieves taldeagaz.

Gure folklorea zaintzen egu-
nero lanean dabilta Durangalde-
ko beste hainbat dantza talde ere.
Iazko ekainean ekin zioten Duran-
goko Tronperri taldekoek 50.
urteurrena ospatzeari, eta aurtengo
ekainean amaitu dituzte ospa-
kizunak. Abadiñon, Iluntze dan-
tza taldearen 30 urteak ospatu
dituzte udaberrian, eta 60 urte bete
ditu Berrizko San Lorentzo tal-
deak ere. Urte askorako! ■ I.E.



Goi-mailako
elikagaiak
Alimentos de
calidad superior

Eusko Labela duten kalitate goreneko elikagaiak Benetakoaz gozatu

Eusko Label produktuaz gozatzea, hain zuzen ere, gure ekoizleek beren lanean jartzen duten arreta balioesten jakitea da, ingurune pribilegiatu parekaezin bat iraunarazten jakitea da, goi mailako kalitate ziurtatua duten produktuak aukeratzen jakitea da... eta benetakoaren zaporeaz gozatzen jakitea da.

Gehiago jakiteak gehiago gozatzea baitakar.



www.benetakoazgozatu.com



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ABERTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA

hazi

Landa eta itsas ingurunearen
garapenerako Eusko
Jaurkitzaileen Korporazioa

Corporación del Gobierno
Vasco para el desarrollo
del medio rural y marino

> ANTZERKIA



Durangoko San Agustin kulturguneko aurkezpenean eman zuten ekimenaren berri.

Euskarazko antzerki sorkuntza bultzatzeko 'Zubi' aurkeztu dute

Antzerki munduko zazpi eragilek aurkeztu zuten ekainean Zubi izeneko ekimen berria

Durango • Bizkaiko eta Iparraldeko sei antzoki publiko, eta Artea eta Le Petit Theatre de Pain antzerki konpainiak batu dira Zubi izeneko ekimenarean. "Euskal antzerkiaren sorkuntza bultzatzen laguntzeko" ipini dute martxan.

Ekainean, Durangoko San Agustin kulturgunean batu ziren egunero antzerkiaren hedapenean eta sustapenean lan egiten duten eragile horiek, proiektuaren nondik norakoak azaltzeko.

"Euskal antzerkiak euskara gizareratzeko laguntzeko daukan garrantzia" azpimarratu zuen Filgi Claverie Luhusoko Harri Xuri Arteen Fabrikako zuzendariak, Durangoko San Agustingo aurkezpen horretan. Hain zuzen, antzerki obrak

"hasieratik euskaraz pentsatu eta garatzeko" baliabideak eskaintzea da Zubi ekimenaren helburu nagusia. Izan ere, egun, gaztelaniaz edo frantsesez sortutako lan asko, diru-laguntzak jaso ahal izateko itzultzen direla euskarara ohartuak dira Zubi ekimenaren bultzatzaileak, eta joera hori irauli gura dute.

Urtero euskarazko antzerki testu bat garatzeko laguntza eskainiko du Zubi: laguntza ekonomikoa emango diete sortzaileei, sorkuntzarako egoitza eskainiko diete, eta emanaldiak lortzen ere lagunduko diete parte-hartzaileei.

Antzerkigintzan bidea egiten hasi diren tamaina txiki eta ertaineko ekoizpenei ematen diete lehentasuna.

Azaldu zutenenez, 2013ko udazkenean ikusi ahal izango dugu ekimenak lagunduta sorturiko lehenengo antzezlanak.

Zugan Ni Eguna

"Gazteen unibertso kreatiboa" plazaratzeko helburuagaz antolatu dute, aurten lehenengoz, Zugan Ni Eguna. Bost urte dira hamalau eta hamazortzi urte bitarteko gazteak antzerkira gerturatzeko helburua duen ekimena burutzen dutela, baina maiatzaren 5ean Durangon eta 12an Zornotzan lehenengoz ospatu dituzte Zugan Ni Egunak. Durangoko San Agustin kulturgunea izan zen Durangoko Zugan Ni egunaren kokaleku nagusia, baina kalean ere agertu zuten gazteen lana.



SAROA BIKANDI

• Ipuin kontalaria

"Kontatuko dizuna zeuri gustatzea da garrantzitsua"

"Zeu zelan zauden, saioen emaitza ere halakoa izaten da"



ANDER BERROJALBIZ

• Musikaria

"Antzinako musika da interesgarrien egiten zaidan arloa"

"Khantoriaren jarduna Euskal Herrira mugatzeko asmoa dugu"

Otxandion batu dira kale artistak I. Artekale Egunean

Euskal Herriko 35 konpainiatako artistak Otxandion batu ziren I. Artekale Egunean, apirilean. "Jai erraldoia" antolatu zuten



Otxandio • Goizean goiz hasita, animazioa, zirku tailerra, erakusketak eta mota guztietako hamahiru kaleko ikuskizun eskaini zituzten Otxandion egindako lehenengo Artekale Egunean, apirilean.

Kale-artearen profesionalen Artekale elkarteak (jaialdiak, antzerki konpainiak eta banatzaileak batzen dituen elkarteak) eta Otxandioko Udalak prestatu zuten egitaraua. Komediak tarte zabala hartu zuen egitarauan, baina umeentzako hainbat ikuskizun ere izan ziren ikusgai.

Datorren urtean beste herri batean antolatuko dute jaialdia. Pedro Ormazabal elkartearen ordezkariaren berbetan, "krisialdi sasoiaren bertako konpainiei laguntzeko modu ona da jaialdi hau".

Bertako antzerki uzta

Hainbat antzerki sortzailearen eta euren lanen berri izan dugu aurten, Durangaldean. Karrika antzerki taldeko 18 eta 21 urte bitarteko gazteek sorturiko *Des-berdinak* ezagutu genuen, adibidez, otsailean: sexualitate askatasunaren inguruko lana. Berrizko kultur etxea hainbat aldiz lepo bete dute Txin-txaun Kolektibokoek, *The Full Monty* obragaz, eta minbiziari eta heriotzari buruzko *Hareazko ipuinak* familiarentzako lana ere estreinatu du Markeliñe taldeak.



ALFONSO TORREGROSA

• Aktorea

"Negarra eragitea baino gaitzagoa izaten da barrea eragitea"

"Antzerkiko lana asteburuetakoa izaten da gehienetan"

> ZILAR ASTEA



Durangoko bonbardaketaren urteurrena gogora eta oholtza gainera ekarri dute

Bonbardaketaren 75. urteurrena bete da aurten. Horixe izan da Zilar Astearen ardatza

Durango • Martxoan zehar Plateruena-ren bueltan antolaturiko egitarauagaz burutu dute aurten, aste tematikoa. Izan ere, faxistek Durangon zibilen kontrako bonbardaketa egin zutela 75 urte bete ziren martxoaren 31n.

Elkarlana dauka Zilar Asteak oinarri, eta Durangoko hamar elkarte, sortzaile eta eragile baino gehiagoren parte-hartzeagaz antolatu dute aurten: artista, eragile eta ikastetxeekin. Euskarazko kulturaren

askotariko adierazpideetan agertu dute zelan tratatu izan den Durangoko bonbardaketaren gaia, eta sortzaileek zelan ikusten duten gaia gaur egungo begiekin.

Zilar Asteagaz bat eginda, Durangoko bonbardaketaren gaia jorratu dute Ibaizabal, Institutua, Jesuitak, Maristak eta Iurreta ikastetxeetan: Unai Iturriagaren *Udaberririk ankerrena* komikia eta Durango 1936 elkartearen dokumentala landu dituzte, besteak beste.

Zilar Astearen barruan, Santa Susanan ipini zuen Txelu Angoitia argazkilariak *In Memoriam* instalazioa, bonbardaketaren ibilaldi kulturala egin zuten martxoaren 31n, *Lurra astinduz* obra eskaini zuten Karrika antzerki taldekoek, eta 1937 gaur diziplina anitzeko ikuskizuna eskaini zuten Peio Salaberria, Paddy Rekalde, Ekaitz Aiartzaguena, Peru Magdalena eta Gotzon Garai-zabalek: "Orduko sentsazioak egungo bitartekoekin islatzeko" helburuagaz.

▣ BERTSOLARITZA

Maialen Lujanbiok zabaldu du aurten DF Bertsozale

Durango • Maialen Lujanbioren berbal-diagaz zabaldu zuten, maiatzean, Plateruena DF Bertsozale zikloa. Bertsolari eta bertsozaleen intereseko gaiak landu dituzte berbaldietan: bertsoari, gai-jartzaileraren lanari eta epailearen ardurei buruz jardun dute. Hitzaldietarako, bertsolari eta gai-jartzaile bina gonbidatu dituzte. Igor Elortza, Jon Maia eta Oihana Bartraren Plateruena DF Bertsozale eman zuten zikloa amaitutzat.

Laugarren edizio honetan, Gorka Lazkano, Eneko Abasolo 'Abarkas' eta Erika Lagoma bertsolariak jardun dute Plateruena DF Bertsozale-ko eguenetako hitzorduak prestatzen.

Bertsolaritzaren inguruko dibulgazioa egiteko antolatu zuten 2009an lehenengoz DF Bertsozale Durangoko Plateruena, eta laugarren urtea bete da.



Gabonak 2012-2013

ABENDUAK 21

17:30ean, Anbrosi eta Argitxok, Olentzaroren gutunak batuko dituzte plazan. Jarraian txokolatada
19:00etan Asier Kidam magoa eta bakarlaria Gaztetxean

ABENDUAK 23

19:00etan Gabon kantaldia Aramaioko elizan: Otxandio, Oleta, Legutio eta Ubideko kantak, Soinubilek antolatuta

ABENDUAK 24

18:30ean, Udal musika bandaren kalejira
19:00etan, Olentzaro, eta berarekin batera herriko txistulari eta Oihandi abesbatzak herriko kaleetan zehar gabon kantak abestuz. Ondoren ardo beroa eta gaztaina erreka, "Pasealeku" txokoan

ABENDUAK 25

12:00etan, txistularien kalejira

ABENDUAK 27

19:00etan, Antzerkia: "Hil arte bizi", gimnasioan

Herriko txistulariak, Kementsu S.C.R, Miru-Gain mendigozale elk., Oihandi abesbatza, "Pasealeku" Jubilatuen elk., Arkotxe K.elk., Mainondo Guraso elk., Udal Musika Banda, Urduri dantza taldea, Gazte Asanblada, Vulkano kirol elk., Soinubil, Iluntxo Pelota elk.

ABENDUAK 29

18:00etan Euskal Selektzioa-Bolivia partidua ikusteko autobusa (sarrerak 23 euro eta autobusa doan)

ABENDUAK 31

09:30ean, Urteko azken mendi irteera Arangio mendira. Txanpaina eta turroia denontzat
11:00etan Afrikar tailerra gimnasioan
18:00etan Herri Krossa (5,8 km)
19:00etan Txistularien kalejira

URTARRILAK 5

17:30ean Umeentzako antzerkia: "Jon beldurgabea"
• Elkartasun eguna gaztetxean



OTXANDIOKO UDALA

> MUSIKA

Bigarren Greatest Hits Gauan batu ziren musikazaleak, udaberrian, Plateruenean

Apirileko zapatu bitan, Durangaldeko 30 musika taldek jo zuten II. Greatest Hits Gauan



Asier Kasta

Durangaldea • Duela bost urte antolatuzuten Greatest Hits jaialdia lehenengoz, eta bigarren edizioa egin dute aurten. Eskualdeko 25 musika taldek parte hartu zuten lehenengo hartan, eta 30ek kantatu dute aurtengoan. Elorrioko Namek Planet, Berrizko Zain eta Mafia, edo Durangoko Yoko Out eta Mongo aritu ziren, besteak beste, apirilaren 20 eta 27ko saioetan.

“Sortu diren musikari taldeen belau-naldi berriek eta zirkuituan urte asko daramatenek elkar ezagutu dezaten” aukera eskaini diete jaialdiaren antolatzaileek, Plateruenean jo zuten musikariei.

Urtebeterako proiektua

Hain zuzen, Platerueneko Greatest Hits jaialdian jotzeko sortu zuten Atxondo eta

Abadiñoko Ghetto musika taldeko lau-musikariek Ghetztzainak proiektua. Her-tzainak taldearen bertsioak herriz herri eta jairik jai eskaintzen eman dute urtea, eta abenduaren 1ean, Zaldibarko jaietan, egin dute “azken kontrola”. Kontzertu horregaz esan diote agur Ghetztzainak taldeari. Ghetto-ren abiapuntuko rock-folk-soul-ari helduko diote berriro.



Askotariko musika taldeen diskoak eta proiektu berriak

September Boy, Iheskide, Kuntur Tree, Kruders, Little John and the Howling Diabrus, Damudot eta Toubkal taldeen disko berriak

Durangaldea • Apirilean Greatest Hits jaialdian parte hartu zutenak ez eze, Durangaldeko beste hainbat musika talde ere izan dira urtean zehar albiste eta berbagai. Esaterako, asteburuan euren herrian kontzertua eskaintzeko ziren Kruders taldeko abadiñarrek *Morir viviendo* diskoari buruz egin ziguten berba, urte hasieran.

Kruders-ek bezala, diskoak kaleratu dituzte aurten September Boy, Iheskide, Kuntur Tree, Little John and the Howling Diabrus, Damudot eta Toubkal taldeek ere.

Gura duenak entzuteko eta deskarga librerako aukeran ipini ditu Durangoko September Boy taldeak lehenengo diskoko kantak: “Kaliforniako punk fresko eta uda giroko abestiak”.



...*Irabazi arte!* diskoa aurkeztu du, beste talde, Elorrioko Iheskide taldeak aurten. “Musikari dagokionez, beharbada irekiagoa da disko hau: ukitu ezberdinak sartu ditugu, betiere, Iheskideren esentzia mantenduta, bai letretan eta bai musikalki”, zioten.

Kuntur Tree, ardoa eta pintura

‘Disko-botila’ euskarri berritzailean aurkeztu du Kuntur Tree hirukoteak bere lana: etiketan Peru Magdalenak eta Gotzon Garai-zabalekegindako margolan eskusiboa daukan USB memoria batean kaleratu dituzte euren hiru diskoetako kantak. Hirukotearen musika entzun bitartean ardoa dastatzea eta botilak dakarren artelanari erreparatzea da egin zuten proposamena.



TXELU ANGOITIA

• Argazkilaria

“Pentsatzera eta sentitzera derrigortu gura dut jendea”

“Hildako bakoitzaren atzean istorio bat dagoela adierazi nahi dut”



AINHOA URIEN

• Idazlea

“Bakarrik nagoenean beti nabil idazteko gaiak pentsatzen”

“Prosaren barruan olerkia sartzea egin zaio epaimahaiari deigarri”



ISMAEL IGLESIAS

• Artista

“Soiltasuna eta naturaltasuna da bilatzen dudana”

“Uste dut artea harreman komertzial bat baino gehiago dela”

> ARGAZKIGINTZA



Oscar Molina, Begira jaialdiko tailerrean. Kinua



Rebelart tailerreko parte-hartzaileak.

Ia 3.000 bisitari jaso ditu Begira jaialdiak aurten; hasi dira 2013ko edizioa prestatzen

Begira Photo Festival jaialdiaren bigarren edizioa egin zuten ekain-uztailean, Durangon

Durango • “Kultura fotografikoa” zabaldu du udan, Durangoko Begira Photo Festival jaialdiak, bigarren urtez. Hainbat tailer, argazki proiektio saioak, eta nazioarteko argazkilarien erakusketak ekarri ditu jaialdiak ekainean eta uztailean, Durangora. Oscar Molina sortzaileak gidaturiko tailer teoriko-praktikoa ere egin dute Begira jaialdiaren barruan: *Detrás de la cámara*. Argazkilaritza proiektu pertsonal bat zelan garatu landu dute, esaterako.

Ikusleen eta egileen arteko interakzioa bultzatzeko bestelako ekimenak ere antolatzen dituzte: konferentziak, kasurako.

Jaialdia amaitu zenean antolatzaileek azaldu zutenenez, %150 hazi da bisitari kopurua aurten: jaialdiaren bost egotzek 2.793 bisitari hartu zituzte. “Oraindino hazteko marjina handia dauka Begira jaialdiak”, nabarmendu zuen Leo Simoes koordinatzaileak. Datorren urterako “ambizio handiagoko” jaialdia antolatzeko lane-

tan buru-belarri daude dagoeneko. Ekainaren 25etik uztailaren 14ra arte egingo dute hirugarren edizioa.

Rebelart gazteen tailerra

Durango bizi diren Senegal eta Maroko hamar etorkin gaztek Rebelart tailerrean egindako lanen erakusketa izan genuen ikusgai ekainean, Durangon. Txelu Angoitia argazkilariak gidatu zuen tailerra, eta San Agustinen ipini zuten erakusketa.

▣ MUSIKA

Ezkurdiko kioskoak 110 urte bete dituela ospatzeko

Maiatzean ospatu zuten Durangoko Ezkurdiko Kioskoaren 110. urteurrena. Durangoko musikarien piezak joaz ospatu zuten urteurrena. Esaterako, Bartolome Ertzillaren 1890eko *La prensa*, edota, Andres Granadosek bandarentzako moldatu zuen Eusebio Bilbao Durangoko akordeonistaren *Capa y espada* eskaini zituzten.

Urteurrenako lehenengo ekitaldia, berriz, Iñaki Uriarte arkitekto bilbotarren berbaldia izan zen. Euskal Herriko musika kioskoen inguruko bere lana aurkeztu zuen Uriartek, Durangon.

▣ ARTEA

Arte sorkuntza eta ekoizpenerako bekaren berri

Joan zen astean jakin genuen zein lanek jaso duen Durangoko Udaren 2012ko sorkuntza beka: Mikel Onandia gaztearen proiektua hautatu du adituen epaimahaiak. Eskualdeko arteari buruzko katalogo bat argitaratuko du Durangoko Udaren diru-laguntzagaz Onandiak, *Artea Durangaldean*, gaur izenekoak. Emaizta artelan bat ez daukan ikerketa teoriko bat saritzen duten lehenengo aldia da.

Sorkuntza artistikoko edozein modalitateko proposamenak lagundu gura dituzte 7.500 euroko laguntzagaz.

GABONETAKO JAIAK

Abenduak 24 *Olentzero*

IBILBIDEA (Irteera: 16:30ean)

Udaletxea - Autonomia - Bolatoki - Psikiatrikoa - Euskal Herria - Olea - Munibe - Bilbao etorb. - San Andres etorb. - Zaldia plaza.

Koral elkarteko trikitilariak izango ditugu giroa alaitzen. Zaldia plazan JAIOTZA jarriko da.

Oharra: Irteeran ume guztiei txarteltxo bana emango zaie eta kalejira amaitutakoan opariak zozkatuko dira Zaldia plazan.

Ahal dela, baserritar jantzita etorri.

Abenduak 26 *San Eztebe eguna*

18:30etik aurrera, Eskolako pilotalekuan: Taloak, txorizoak, urdaia eta gaztaina erreak.

Koral elkarteko trikitilariekin.

Urtarrilak 1 *Santamarinazarrera*

10:30etan taldeko argazki ofiziala. Guztientzako hamarretakoa.

Urtarrilak 5 *Erregeen desfilea*

IBILBIDEA

18:30ean, Erregeak helduko dira Olazar pilotaleku ingurura

Olazar - Euskal Herria - Psikiatrikoa - Olea - Aranzamendi - Euskal Herria - Udaletxeko plaza

Ez ahaztu! Oraindik erregeei eskutitza bidali barik badaukazue, orduan izango duzue eskutitza eurei zuzenean emateko aukera. Ondoren Udaletxeko balkoitik erregeek agur esango digute, balna Joan baino lehen balkoitik botako dizkigute gozoki, serpentina eta sorpresatxoak.



KIROLAK >



Maider Undak brontzezko domina irabazi du Londresko Joko Olinpiarretan. Basque Team

Maider Undarentzako urte gogoangarria izan da aurtengoa. Londresko Joko Olinpiarretan brontzezko domina irabazi du, 35 urte gaz. Orain lau urte Beijingen diploma olinpiarra lortu ostean, Londresen bere ibilbideko gorenera heldu da oletarra.

Domina horrek indarberritu egin du Unda, eta momentuz ez du erretiratzeko asmorik. Espainiako eta Europako txapelketetan parte hartuko du, eta ez du baztertzeko 2016an Rio de Janeiroko Joko Olinpiarretarako sailkatzen saiatzea: "Orduan 39 urte izango ditut. Ez da erraza izango, baina ezta ezinezkoa ere. Hori bai, askoz gehiago zaindu beharko dut neure burua". Datorren urtean ere emango du zeresana borroka librean ari den oletarrak.

Brontzea jantzi du Undak

Bere ibilbideari amaiera ematea erabaki duena Eneritz Iturriaga txirrindularia da. Irailean iragarri zuen txirrindularitza utziko zuela: "Heltzen da une bat, sakrifizio gehiagorako psikologikoki nekatuta zaudena. Alderdi ekonomikoari baino beste gauza batzuei ematen diezu garrantzia".

Profesionaletan palmares esanguratsua du txirrindulari abadiñarrak. Euskadiko txapeldunaren elastikoa bost urtez luzitu du. 2007an eta 2009an Espainiako txapelketak irabazi zituen puntuazio eta jarraipen modalitateetan, hurrenez hurren. Emakumeen Biran etapa bat ere irabazi zuen 2003an.

Urtean zehar asko dira Durangaldean nabarmendu diren kirolariak: Egoitz Murgoitio, Unai Elorriaga, Ziortza Isasi, Jon Asueta,

Lourdes Oiarbide, Borja Abasolo, Illart Zuazubizkar eta Iban Leanizbarrutia txirrindularitzan eta Iñigo Lariz, Gurutze Frades, Unai Urien eta Oihana Azkorbebeitia korrika, besteak beste.

Taldeakako kirolean denarik gertatu da. Gizonezkoetan, Tabirako Baquesaskibaloi taldeak eta Durango Rugby Taldeak latz sufritu dute mailari eusteko. Nesketan, aldiz, Tabirako Baquek oso denboraldi ona osatu du. Futboleant, Iurretako, Abadiño, Ezkurdi eta Vulcano mailaz igo dira. Berriek, oster, maila galdu du. Tristeagoa da Extremeñoren kasua, kluba desagertu egin delako errelebo faltagatik.

Azkenik, areto futboleant Abadiñoko Lagun mailaz igo da, eta Sasikoa eta Elorrioko jaitsi egin dira. ■ Joseba Derteano

> TXIRRINDULARITZA



Iñaki Lejarreta Espainiako Mendiko Bizikletako txapelduna zen.

Atsekabea txirrindularitzan Iñaki Lejarretaren heriotzagatik

Bizikletan zihoala auto batek harrapatuta hil zen lurretan

Berriz • Saminez agurtu du txirrindularitzak 2012a Iñaki Lejarretaren heriotzagaz. Abenduaren 16an, Lejarreta bizikletan zihoan N-634 errepidean, Iurretaren parean, Bilborako norabidean. Auto batek harrapatu egin zuen 29 urteko gaztea, baina Ertzaintza ikertzen ari da oraindino ezbeharraren arrazoiak. Lejarreta harrapatu zuen auto gidariak positibo eman du estupefazianteetan –alkoholemian negatibo eman du–, Ertzaintzak medikamentu batengatik izan daitekeela argitu

duen arren. Analisi gehiago egingo dizkiote gidariari; izan ere, positibo eman zuen substantzia medikamentu zehatz batzuetan ere badago, eta positiboa hortik etor daiteke.

Iñaki Lejarreta Espainiako Mendiko Bizikletako txapeldun ohiaren heriotzak erreakzio ugari eragin zuen sare sozialak mugimenduaren eraginez. Biharko irteera bat antolatu dute Lejarretaren omenez Berrizen, eta etzi beste martxa bat egingo dute Bilbotik Iurretara.

ARKU TIRO

Zaldibarko arku tiro taldeak 15 urte bete ditu aurten

Zaldibar • Hamabost urte joan dira Zaldibar arku taldea sortu zutenetik. Urtemuga ospatzeko arku tiroaren inguruko hiru txapelketak jokatu zituzten azaroan. Irabazlearentzako trofeo berezi bat diseinatu zuten.

Carlos Olabarriagak Bilbon arku tiroaren gaineko ikastaro bat egin ostean, beste lagun batzuekin batera herrian talde bat sortzea erabaki zuen 1997an. Ordutik hona, zaletasuna sustatzen jardun dute nagusien zein gaztetxoaren artean.

Gaur egun, 20 lagunek osatzen dute nagusien taldea. Arku tiroa ezagutarazi nahian, gaztetxoaren artean ikastaroak ematen hasi ziren orain hiru urte, eta gaur egun, sei gaztetxok dihardute. Goi mailako hainbat arkulari izan dituzte, baina denen gainetik, Lidia Cañete dago. Cañetek hainbat bider irabazi ditu Bizkaiko eta Euskadiko txapelketak.



ENERITZ ITURRIAGA

• Txirrindulari ohia

“Gaietarik 30 kilo kendu banitu lez sentitzen naiz txirrindularitza utzi ostean”



KOIKILI LERTXUNDI

• Futbol jokalaria

“Taldearen ibilbide bikainak gozatu dizkit arlo pertsonalean bizitako une latzak”

Zorionak eta urte berri on!

Abenduaren 24an Olentzero eguna ospatuko dogu.

10:30ean Udaletxe aurrean irteera, etxerik etxe abesten joateko.
Eguerdian bazkaria, parte hartu daben guztientzat Otea Loran elkartearen.
Ondoren hirigunean jarraituko da abesten.

GARAIO UDALA

> FUTBOLA



lurretakoko jokalariai igoera ospatzen.

Lurretako kluba ohorezko mailan ari da lehenengoz

Uztailean mailaz igotzea lortu zuen lurretakok

Durangaldea • Urtero legez, gozotik eta gazitik, bietatik utzi digu futbolak. Lurretakok ohorezko mailara igotzea lortu du, bere historian lehenengoz. Gainera, gaur egun sailkapeneko bigarren postuan dago, eta ez da kasualitatea, 14 jardunaldi joan direlako. Elorrio ere maila berean dabil. Igoeraren gozoa probatu dute Abadiño, Ezkurdi eta Vulcanok ere. Abadiño garai bateko izena eta pisua berreskuratzen dabil apurka. Lehen erregionalerako ziren ekainean, eta gauegun, mailako lau-

garren postuan daude. Berrizek, aldiz, kontrako bidea darama. Ohorezko mailan makina bat urtez aritu zen kluba, birritan jaitsi da urte gutxian. Gaur egun, Zaldibarko Zaldia da lehenengo erregionalerako liderra. Durangoko Ezkurdik eta Otxandio-ko Vulcanok ere mailaz igotzea lortu dute. Ezkurdi bigarren erregionalean dabil aurtent. Vulcanoko jokalariek Pascuali traktore batengainean herria zeharkatu zuten igoera zaleekin ospatzeko.

> ARETO FUTBOLA



Abadiño Laguneko bakarrik lortu du igoera eskualdean

Durangaldea • Areta futbolak ezagutu izan ditu urte hobeak Durangaldean. Abadiño Lagun da igoera lortu duen talde bakarra. Euskal ligan dabil gaur egun. Maila berean dabil Sasikoa eta Elorrioko Buskantza ere, hirugarren mailatik jaitsi egin direlako. Lehendik euskal ligan zebilen Kurutzia kontuan hartuta, aurtent makina bat derbi izango dira euskal ligan. Gaur egun, Mallabia da Durangaldeak areto futboleko duen ordezkari nagusia. Hirugarren mailan dabil, sufritzen, mailari eusteko eginahalak egiten.

> SASKIBALOIA

Tabirako Baqueko gizonak latz sufritu dute mailari eusteko

Durango • Gizonetan sufritu eta emakumeetan gozatu egin dute aurtent Tabirako Baque klubeko zaleek. Gizonak jaitziera fasea jokatu behar izan zuten eta azken unera arte ez ziren salbatu. Emakumeen talde nagusiak, aldiz, denboraldi bikaina osatu du. Iaz beheko zuloan balantzan ibiltzetik, aurtent onekin borrokatzera pasatu dira. Denboraldia laugarren amaitu dute, liga hasi aurretik indartsuagoak ziruditen Ardoi eta Loiola taldeen aurretik. Alberto Molina entrenatzailearen berbak dira: “Urte gogoangarria izan da, eta espero baino askoz hobeto ibili gara”.



> FUTBOLA

Extremeño futbol taldea desagertu egin zen irailean

Durango • 1974an sortu eta bere lehen partidu ofiziala 1975ean jokatu zuen Extremeño futbol taldea irailean desagertu zen. Zazpi urtean klubeko presidente izan ostean, Manuel Reyesek, nekatuta, kargua uzteko asmoa adierazi zion elkarteari otsailan, eta harrezkero, ezin izan dute ordezkorik topatu. Beraz, zuzendaritzarako errelebo falta izan da Extremeño kluba desagertzeko arrazoia.



> PILOTA

Amaia Araiztegik zilarrezko domina irabazi du Irlandan

Mallabia • Urrian Dublinen (Irlanda) jokatu zen Munduko One Wall txapelketan Amaia Araiztegi mallabiarrak zilarrezko domina irabazi zuen paleta goma modalitatean. Araiztegik adierazi duenez, “talde batua sortu dugu euskal pilotariok”. Itsaso Pradera mallabiarrak ezin izan zuten finalerako sailkatu, baina urtean zehar hainbat lorpen izan ditu; uztailean paleta goma zirkuitua irabazi zuen.



> ERRUGBIA

DRTko gizonak justuan eutsi diote ohorezko B mailari

Durangaldea • Durango Rugby Taldeko gizonen talde nagusia estu eta larri ibili da ohorezko B mailari eutsi ahal izateko. Jaitziera postuetan geratu eta promozioa jokatu behar izan zuten. Azkenean, mailari eustea lortu zuten. Zoritzarrez, aurtent ere sufritzea egokituko zaie. Euskal ligan, aldiz, Elorriok igoera fasea jokatu eta denboraldi handia osatu zuten Urdin Ugarteren gizonak.



JON ANDER CRENDE

• Errugbi jokalaria

“Errege Kopa irabazi eta Ordiziara itzultzean, kale bazter denak jendez beteta zeuden”

“Ligako finalean partidu txarra jokatu eta galdu egin genuen”



ARANTZA MORENO

• Xabalina jaurtiketa

“Badakit oraindik hobetzeko asko dudala; entrenatzaileagaz lanean ari naiz”

“Ez nuen espero gazte mailako Espainiako errekorra egiterik”



IÑIGO LARIZ

• Mendiko eskia

“Mendiko eskiak sakrifizioa eskatu arren, trukean jasotzen denak ez du preziorik”

“Italierrek eta suitzarrek dute mailarik handiena”

> ATLETISMOA



Distantzia laburrean zein sprintean Euskadiko txapelduna da Frades.

Distantzia laburreko Euskadiko txapelduna da Gurutze Frades

Oihana Azkorbebeitiak, berriz, Hiru Haundiak irabazi ditu

Durangaidea • Distantzia laburreko Euskadiko txapeldun berria da Gurutze Frades durangarra (Mugarra TT), Durangoko Dualtoian deskalifikatzeagatik Euskadiko Triatloi Federazioan aurkeztutako kexa onartu eta gero. Apirilean izan zen hori. Horren aurretik, sprint modalizatean ere Euskadiko txapelketa irabazia zuen korrikalari durangarrak. Bestalde, urrian, distantzia luzeko Espai-

niako triatloi txapelketa ere lortu zuen Gurutze Fradesek.

Azkorbebeitiaren marka berria

PARAPENTEA



Iñigo Gabiriak Pirinioak zeharkatu ditu, hegaz

X-Pyr parapente proban jardun du elorriarrak

Durango• Gipuzkoatik Girona parapentean joan zen abuztuaren 14an Iñigo Gabiria elorriarra. X-Pyr probaren lehenbiziko edizioaren parte hartuz zeharkatu zituen Gabiriak Pirinioetako ton-torrak; guztira, 440 kilometro. Laguntzaile izan zuen Iñigo Mendibil atxondarra.

Iaz Gabiriak ibilbide bera egin zuen, baina bere kontura. Orduko esperientzia eta batutako informazioa baliagarriak izan zaizkio. Elorrioko kirolariak 21 urteko eskarmentua du parapentean. Probak iraun zuen hamabi egunetan gertatutakoa zuzenean jarraitzeko aukera eskaini zuten.

MOTORRA



AutokroSean Espainiako onena da Arkaitz Uranga

Formula 3an probak egiten hasi da Igor Urien

Durangaldea • Goi mailan jardun du Arkaitz Uranga gidari mallabiarrek, emaitza ezin hobekin: Espainiko Autokros Txapelketa irabazi du 1.600 zilindradara arteko mailan. Citroen Saxoaren bolantean lortu du onena izatea.

Bestetik, Igor Urien abadiñarra Formula 3agaz lehenengo probak egiten hasi da abenduan. Datorren urteko gastuei aurre egi-

teko babeslea topatu bitartean, Emilio De Villotaren taldeagaz ibili da Xerezko zirkuituan. Esperimentzia ederra eta fisikoki exigentea dela esan zuen.

Aitor Martinez ere nagusi
Aitor Martinez motor gidari abadiñarrak ere lortu du saririk. Iparraldeko Abiadura Txapelketa irabazi zuen irailean.



Gaitzerak

Elorrión
 2012-2013

20 ABENDUA OSTEGUNA 18:00 CONFERENCIA, ITURRI. EL BELEN, ARTE E ICONOGRAFIA SATUR PEÑA 20:00 CENA Y BAILE, ALDATSEKUA. AFARIA ETA DANTZALDI BEREZIA La Esperanzakoen ariak-erleko ariak eta dantzaldi berezia. 9:00/ 21:00, ITURRI. ERAKUSKETA Argazki Taldekoen "Erretratuak" 28ra arte.	24 ABENDUA ASTELEHENA OLENTZEROREN GAUA 25 ABENDUA ASTEARTEA 11:30 Canto Coral, BASILIKA. LA NATIVIDAD DEL SEÑOR El Coro parroquial actuará en las celebraciones eucarísticas. 20:00 Zinea, ARRIOLA. LO IMPOSIBLE 12 urteik gorakoentzat
21 ABENDUA OSTIRALA 16:00. BILBORA IRTEERA. BELEN ERAKUSKETARA BISITA Inscrito en Aldatekua para ir a visitar los belenes a Bilbao. 22:00 TRIKITIXA eta ANTZERKIA. Herriarren partaidetzaekin, ARRIOLA. ZU ERE ON KIXOTE? AGERRE TEATROA & IMUNTZO ETA BELOKI ELORRIOKO TALDEAK	26 ABENDUA ASTEAZKENA 11:30 Meza, Erromeria eta Hamaiketakoa, BERRIO. AUZOKO JAIK 27 ABENDUA OSTEGUNA 11:30-13:30 / 17:00-20:00, KIROLDEGIKO FRONTOA, HERRIKASTETEA GABON PARKEAK Kiroldegiko frontoan 24 urte bitartekoentzat: txakloak, puzgarriak, kudoak... Herri musikariak: 7-12 urtekoak: puzgarriak, txakloak, kudoak... 20:00 Antzerkia, San Agustinen edo Elizan RIGAUT DE BARBEZIEUX Gure eskualdeko gertakaria. Gertakio errealak Duintzalek Bizkaiko jaurriari oparitu zion garaia gogoratzen.
22 ABENDUA LARUNBATA 22:30 Zinea, ARRIOLA LO IMPOSIBLE 12 urteik gorakoentzat	28 ABENDUA OSTIRALA 11:30-13:30 / 17:00-20:00, KIROLDEGIKO FRONTOA, HERRIKASTETEA GABON PARKEAK Kiroldegiko frontoan 24 urte bitartekoentzat: txakloak, puzgarriak, kudoak... Herri musikariak: 7-12 urtekoak: puzgarriak, txakloak, kudoak... 20:00 Zinea, ARRIOLA REALITY Adin guztientzat
23 ABENDUA IGANDEA 10:00 / 14:30 Flea Market, PLAZA. MERCADILLO POPULAR Saldu, erosu, oparitu, trukatatu,... 12:00 Jaialdia, FRONTOA. GABONETAKO KAINABERAKO JAIALDIA Festival anual navideño de la solidaridad, KAINABERA 17:00 Umeentzat antzerkia, ARRIOLA. OLENTZERO ETA KATU MIRAGARRIA KALIKA TEATROA 19:00 Reparto de premios, ALDATSEKUA. TXOKOLATADA, DANTZALDIA ETA KARTETAKO TXAPELKETAREN SARI-BANAKETA 20:00 Zinea, ARRIOLA LO IMPOSIBLE 12 urteik gorakoentzat	29 ABENDUA LARUNBATA 11:30-13:30 / 17:00-20:00, KIROLDEGIKO FRONTOA, HERRIKASTETEA GABON PARKEAK Kiroldegiko frontoan 24 urte bitartekoentzat: txakloak, puzgarriak, kudoak... Herri musikariak: 7-12 urtekoak: puzgarriak, txakloak, kudoak... 20:00 Zinea, ARRIOLA REALITY Adin guztientzat
30 ABENDUA IGANDEA 11:00 Herri Lasterketa, PLAZA SAN TXIBIRI 2012	31 ABENDUA ASTELEHENA 17:00 / 16:00 (BI SAIO) ARRIGOLA MARRIGOLA AIOLA TEATROA (Jone Irazabal) Umeentzako antzerkia 20:00 Zinea, ARRIOLA REALITY Adin guztientzat
	01 URTARRILA ASTEARTEA 09:00 Interea plazaatik. MENDI IRTEERA Gongeta (704m) eta Abaurreaburgana (979m)
	02 URTARRILA ASTEAZKENA 12:30-13:30 / 16:00-20:00, KIROLDEGIKO FRONTOA. KINER-DANCE, GITAR-HERO... SATEIA ETA BI PANTAILA, WL PLAY STATIONI ETA XBOX 360 PANTAILA 7-15 urte bitartekoentzako ziber-espazioa
	03 URTARRILA OSTEGUNA 12:30-13:30 / 16:00-20:00, KIROLDEGIKO FRONTOA. KINER-DANCE, GITAR-HERO... SATEIA ETA BI PANTAILA, WL PLAY STATIONI ETA XBOX 360 PANTAILA 7-15 urte bitartekoentzako ziber-espazioa
	04 URTARRILA OSTIRALA 12:30-13:30 / 16:00-20:00, KIROLDEGIKO FRONTOA. KINER-DANCE, GITAR-HERO... SATEIA ETA BI PANTAILA, WL PLAY STATIONI ETA XBOX 360 PANTAILA 7-15 urte bitartekoentzako ziber-espazioa 18:00 Umeentzat antzerki musikaile, polifonikoa, ARRIOLA TATXIN ETA TATXANEN ABENTURAK (2-10 urte)
	05 URTARRILA LARUNBATA ERREGE MAGOEN GAUA

Antolatzaileak:



Elorrio udala

Laguntzaileak:

ARRIOLA KULTUR ARIETOA, KAINABERA GKE, BESAIDE DANTZA TALDEA, ELORRIOKO TXIBIRIARIK, ERDELLA MENDIZALE TALDEA, CORO PARROQUIAL, CEREJADACA ELKARTEA, EL ORRIKO JOSE ANDRESEN ELKARTEA, LA ESPERANZA NAGUSIEN ELKARTEA eta ELORRIOKO ARGAZKI TALDEA.

ZARATE ELEXPE

E R A G I L E A K

sustatzen du:



**27 etxebizitza, 4, 3, 2 eta logela bakarrekoak.
Terraza handiak eta ganbarak estalkipean.
Garaje itxi zein irekiak.**

JARRI GUREKIN HARREMANETAN
ETA EGIN ERRESERBA:

Tel.: 94 681 66 73

www.zarateyelexpe.com



aisia

www.aisiahoteles.com
902 820 997

Aisia Lekeitio Hotela

Santa Elena etorb, z/g

Tel.: 94 684 26 55

lekeitio@aisiahoteles.com

Aisia Deba Hotela

Markiegi kalea, 6

Tel.: 943 60 80 52

deba@aisiahoteles.com

Aisia Hotelak jai zoriontsuak opa dizkizue

Aisia Lekeitio eta Aisia Debako langileak Gabon Zoriontsuak opa dizkie bere bezero guztiei, beraien gain jarritako konfidantza eskertuz

Aisia Lekeitio eta Aisia Debako langileak Gabon Zoriontsuak opa dizkie bere bezero guztiei, beraien gain jarritako konfidantza eskertuz.

Aisia Lekeitio Hoteletik, Edurne Horta-k bezeroek gabonetako pakete eta menu bereziei buruz eduki duten baliospen ona azpimarratzen du. Familiaskok dute bere konfiantza hotelean ezarria, gabon guztiak "Emperatriz Zita"n igaroz.

Aipatzekoa da ere Errege Eguneko menu berezia; menu berezi honetan kalitatea da aipagarriena baina, bide batez, gaur eguneko egoera latzera moldatua dago. Gainera etxeko txikientzat ere hainbat uste-kabe ere prestatuak daude, seguru asko atsegin izango dituztenak.



Aisia Deba Hoteletik, bere lan talde osoak Urte Berri On bat opa dizue. Xagit Andonegui-k (Sukaldeko nagusia) eta baita ere Mireya Aspiazu-k (Jate-txeko arduratzailea) aurtien egon diren ezkontzen balioztatze ona egiten dute. Buru – belarri ari dira lanean ezkontzetako menu berriak prestatzen eta platerren aurkezpenak hobetzen. Biak batera lan talde ezin hobea osatzen dute ezkontza guztiak bako-



Aisia Lekeitio Hoteleko lankideek Gabon Zoriontsuak Opa Dizue

tzaren neurrira egiteko, bikote bakoitzari beraien ezkontzan behar duten jatorrizko ukitua emateko.

Ze alderdi uste duzue balioztatzen dituztela zuen bezeroak ezkontza zuekin egitera erabakitze ? Mireya Aspiazu eta Edurne Horta, jateetxetako arduradunak azaltzen digute:

Lehendabizi hotelaren kokapenak, hondartza aurrean, izugarrizko bistak eskeintzen dizkigu jate-

txetik. Gure terraza, ezin hobea bertan zeremonia ospatzeko, eszena tokirik hoberena da gure cocktail berriak dastatzeko. Jan- edanari buruz, aipagarria da gure ezin besteko kalitatezko gastronomia, bertoko elikagai freskoak erabiliz, Ondarroako arrainak adibidez. Guzti honek, ezkontza pertsonalizatu batekin batuz, Aisia Hotelak ezin besteko toki egoiak izatera eramaten du edozein motatako gerta-kizunak ospatzeko


BI BONO GASTRONOMIKO ZOZKETAN AISIA LEKEITIO HOTELEAN

Eskualdeko zein kirolarik irabazi du brontzezko domina joko olinpiarretan?

AZAROKO IRABAZLEAK: M^{re} Carmen Mandiola eta Gorka Molero. **ZORIONAK!**

BIDALI ZURE ERANTZUNA:

astekaria@anboto.org-ra edo Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta helbidera



BERBAZ >



BEGOÑA CHARRO
Psikologoa

“Anorexian eta bulimian, inguruak kontrolatu behar du gaixotasuna, ez alderantziz”

“Gaixotasunagaz urte askoan bizi direnentzat gaitza da barneratuta dituzten ohiturak kentzea”

Elikadura portaeren nahasteak eduki ditu berbagai Begoña Charrok, Abadiñon egin-dako hiru hitzalditan. ACABE anorexia eta bulimiaren kontrako elkartearen berri eta gaixotasun horiek hobeto ezagutzeko argibideak eman zituen. Gizartean aurreiritzi asko daudela nabarmendu zuen, bai eta familiaren eta lagunen inplikazioa garrantzitsua izaten dela ere.



FERNAN RUIZ
Berbaro elkarteko kidea

“Euskarara hurreratu gura duenari bidea errazteko lanean hankamotz gabiltza”

“Etorkinen lehentasuna, eta denona, lana da, eta hemen, zoritxarrez, lan mundua elebakarra da”

Durangaldean bizi diren etorkinek euskaragaz duten hartu-emanaren berri dauka Fernan Ruiz Berbaro elkarteko kidea. Azken urteetan, AISA ikastaroen bidez etorkinak euskarara hurreratzeko ahalegina egin dute. Bide berrien premia ikusten du Fernan Ruizek.

MIGUEL ZUGAZA

Prado museoko zuzendaria



“Krisi sasoi honetan kultura defendatzen jakin behar dugu”

“Durangarrek “alfonbra gorria” daukate Pradon. Asko pozten naiz museoan egon den jendea aurkitu eta gozatu dutela jakitean”

Astero Madrilera joan-etorria egiten du Miguel Zugazak durangarrak. Madrilaren erronka handiz betetako eginkizunak ditu, Prado Museoko gidaritzan. Museoan finantzazio publikoaren %30 murriztu dietela azaldu zuen. Museoen papera defendatzeaz hitz egin zuen: “Ez dago ikustea besterik Guggenheimek esan gura duena Euskal Herriko ekonomiarako”.

ROBERTO BERMEJO

Ekonomialaria eta injineru industrial



“Krisiagaz Abiadura Handiko Trenak geroago eta zentzu gutxiago dauka”

“Eusko Jaurларitza dabil obra ordaintzen, eta bitartean, hezkuntza eta osasun arlotik murrizketak egin dituzte”

Abiadura Handiko Trenaren obrak hasita, krisi ekonomikoa heldu da. Roberto Bermejo ekonomialaria garraio eta azpiegitura handietan aditua da, eta aspalditik dabil AHTaren errentagarritasuna zalantzan ipintzen. Orain obretarako dirua ipintzen Eusko Jaurларitza bakarrik dabilela nabarmendu zuen.




NEKANE JURADO
Ekonomialaria

“Ekonomia komunitatearen zerbitzura egon behar da, merkatuen zerbitzura egon beharrean”

“Ongizate estatua deusezten ibili dira, eta krisiak azkartu egin du prozesu hori”

Krisi ekonomikoa hobeto ulertzeko eta haren aurrean irtenbideak bilatzeko hainbat hitzaldi antolatu dira 2012an. Nekane Jurado ekonomilariak Ekofeminismoa planteatu zuen irtenbide legez. Bere berbetan, “krisia ez da ekonomikoa bakarrik, eta amalurra eta balio femeninoen bidea hartuta aldatu beharko litzateke eredu ekonomikoa”. Auzolana aldarrikatu zuen.



NEREA GOIRIA

Euskal filologoa eta ‘Ahotsak.com’ atariko langilea

“Durangon, euskarari dagokionez, belaunaldien arteko transmisioan galera handia egon da”

“Bertako hizkeran gauza asko galdu dira: jendeak urtxintxa esaten du, eta ez mixerra edo katamixerra”

Euskal herriko ahazko ondarea batzeko *ahotsak.com* egitasmorako, Nerea Goiriak Mañarian eta Durangon jardun du pertsona nagusiei elkarriketak egiten. Hizkuntza aberasten duten hainbat berba eta esamolde galdu direla konturatu da, eta gauza bitxiak ere entzun ditu elkarriketetan; Durangoko gizon batek esan zion bere osabak Fidel Castro ezkondu zuela.

KARMELE BERRIOZABAL

Erizaina, Ima Berriozabal preso elorriarraren ahizpa



Karmele Berriozabalek ondo ezagutzen ditu Inma ahizparen gaixotasun kronikoak: hipertentsioa, diabetesa, asma bronkiala, artropatia psoriasikoa... 60 urte dauka Inmak eta 18/98 auziagatik dago kartzelan, Pontevedran (Galizia). Kartzelan egoteak gaixotasunen kontrola eta zaintza oztopatzen dituela azaldu zuen bere ahizpak, Herrirak antolatutako hitzaldian.

“Jarraipen estua eta kontrolak behar ditu bere gaixotasunak okertu ez daitezen”

“Esfortzu handia egiten du kanpotik joaten direnekin ondo egoteko, baina oso kezkatuta dago”

MARI CARMEN HERNANDEZ

Jesus Mari Pedrosaren alarguna



“Adiskidetzeari beharrean, elkarbizitza baketsua da gizarteak behar duena”

“Ez dugu atsegin zelan berba egiten den gizartean gure errealitateaz, errealitate hori oso anitza delako”

Glencree ekimenean parte hartu du Mari Carmen Hernandezek. Isilean egindako lanean hasi zen Glencree duela bost urte ETaren, GALen, Batallón Vasco-Españolen eta Poliziaren biktimak batzeari ekin zioten elkarren berri izan zezaten. Esperientziak zauriak osatzen lagundu diola azaldu zuen, eta positiboa izan zela talde osoarentzako.

HEMEN BIZI >

Aconcagua "konkistatzeko" abenturan murgilduta

Lourdes Basterretxeak "El Conquistador de Aconcagua" lehiaketa irabazi zuen



Irudian, Lur Basterretxea eta Iñaki Sagarna.

Abenturazale eta kirolzale, Lourdes "Lur" Basterretxea elorriarrak eta Iñaki Sagarna "Txileno" abadiñarrak ETB2ko "El Conquistador de Aconcagua" n parte hartu zuten 2011ko edizioan. Baita amaierara heldu ere. Basterretxeak irabazi zuen lehiaketa.

Igoera egunean bere buruagaz harrituta egon zela azaldu zuen Lurrek. Erritmoa ondo eroan zuen, eta burukominekido arnasteko arazorik ez zuen eduki. Iñakik, oster, fisikoki hain indartsu ez zegoela ikusi zuen.

Lehiaketan oso lagun onak egin dituztela eta euren burua hobeto ezagutu dutela esan zuten biek. Dutzarik eta telefonorik bako lekuan ibili eta gero, hemen ondatsun asko ditugula konturatu da Lur: "Zertarako behar dugu hau guztia?".

Marokon, Panda Raid rallyan parte hartu dute bi iurretarrek

Desertuan 6.000 km egin dituzte, eskola baterako material didaktikoagaz

Lagun batek autoa matxuratuta eman, eurek konpondu, eta Marokora joan ziren martxoan Eneko Barroeta eta Arrizen Sagarduy iurretarrak, Panda Raid rallyan parte hartuz. Eskola batean material didaktikoa uztea izan da rallyaren helburua, eta desertutik 6.000 kilometro egin behar izan dituzte Seat Panda autoagaz.

Gustura ibili dira, auto barruan ordu asko izan badira ere. Lantzean behin, harrapatuta geratu eta autoari bultzaka ibili behar izan dutela kontatu zuten.

Desertuaren erdian jende asko, eta batez ere, umeak topatu dituztela kontatu zuten. Azkarren nork egin baino, helmugara tzea zen helburua, eta pena apur bat ere izan dutela azaldu zuten, material didaktiko gehiago eroateko aukera ez zutelako izan.



Barroeta eta Sagarduy Seat Pandaren gainean.



URDAX MAGUNAZELAIA
• Harrijasotzailea

"15 urte bete orduko 180 kiloko altxatu gura dut"

"Errugbiak arnasa edukitzen laguntzen dit harria jasotzeko"



IZASKUN ELLAKURIAGA
• Kazetaria

"Nork esango luke munduko beste puntan euskara irakasle ibiliko nintzenik!"

"Aucklanden kultura oso anitza eta aberatsa da"



MIKEL URRESTI
• Soroslea

"Igerileku osoa ezagutzen dut; izenak ere gehienak dakizkit"


"Udan denok basatiago ibiltzen gara; abuztutik aurrera sosegatu egiten dira umeak"



TXOMIN MORENO
• Errebonbiloa

"Errebonbilo izandakoek gu ikustean inbidia izaten dutela uste dut"

"Soldaduskan egon nintzenean ere ez nuen jaira faltatu"



ENEKO SAGARDOI
• Aktorea

"Batzuetan turkiar azentua kentzea kostatzen zait"

"Goenkale gure etxean erlijio bat izan da; ama eta amama baldintza bako zaleak dira"

Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto
komunikabideak
Bixente Kapanaga, 9
48215-lurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org
2012ko abenduaren 21a
11. urtea - Urtekaria

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua: Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso,
Amaia Huarte, Itxaso Altuna, Aitor López.
Erredakzioa: Aitziber Basauri,
Itsaso Esteban, Markel Onandia,
Amaia Ugalde, Ane Elordi.
Maketazioa:
Ainhoa Arizmendiarieta.
Zuzentzailea: Goiatz Etxeita.
Argazkilariak: Kepa Aginako,
Zalaoa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.150 ale



“Koltxoi on bat aukeratzeko modu onena probatzea da”

Koltxoien eta oihalen Gau-tu dendan, kalitateagatik eta fabrikazio eragatik bereizten dira

Ainhua Pineda eta Leire Peña berriztarrek Gau-tu zabaldutako atsedeen sistemak eta oiha-lak eskaintzen dituen denda. Landakon, Olleria kalean daukate denda. Koltxoia, burkoak, telak... Hainbat produktu daukate erakusgai, eta bezeroari horiek probatzeko gonbita egiten diote.

Irailean zabaldutako denda. Zelakoa izan da hasiera?

Leire Peña: Denda muntatzeko ideia eduki genuen. Orduan, mugitzen hasi ginen; koltxoi fabriketara joan, hornitzaileak bilatu, materialak aztertu... Jendea aholkatu ahal izateko formatzen egon gara.

Zelan sortu zitzaizuen ideia?

Ainhua Pineda: Ni aurretik horretan lanean ibilia naiz. Asko gustatzen zait; beti lan egin izan dut jendeari begira. Irteera bazeukala ikusi nion dendari. Durango herri handia da, eta gurea lako denda espezializatu batek lekua bazeukala ikusi genuen. Koltxoiez aparte, lotura

daukan guztia daukagu. Aukera ona iruditzen zait honetan behar egitea. Gero Leire animatu zen, beraz, ederto!

Tratu berezia eskaintzen diozue bezeroari.

A.P.: Jendearen atsedena asko arduratzen gaitu, ez bakarrik produktua saltzeak. Beste leku batzuetan saltzea dute helburu bakar. Gero eta gehiago saldu, hobeto. Hemen gurago dugu saldu ostean pozik geratzea eta hurrengoan berriro etortzea.

L.P.: Jendea oso konbentziturak joateko saiakera egiten dugu. Ez dugu saldu gura saltze hutsagatik; beste egun batean probatzen etorri behar baduzu, etorri. Asko temetzen gara horretan. Deskantsatzeko beharrezko zer edo zer da, askok zortzi ordu pasatzen dituzte bertan, oinarritzakoa da. Koltxoi on bat bizitza da.

Kalitateari ematen diozue garrantzia.

A.P.: Hemen, geuk gura genuena daukagu bakarrik salgai. Koltxoi batzuk eskuz zelan fabrikatzen dituzten ikusi dugu, esaterako.

Lanean 40 urte daraman jendeagaz dihardugu. Kalitatean eta egiteko eran bereizten gara.

Bezeroa aholkatzerakoan, zer edukitzen duzue kontuan?

L.P.: Lehenbizi, lo egiterakoan izaten duen ohiturrei buruz galdetzen diogu. Bakoitza mundu bat da, eta ez dago bat bestea baino koltxoi hoberik. Norberaren gustuak eduki behar da kontuan.

A.P.: Asko ideia argi bat eduki barik etortzen dira. Koltxoi guztien inguruko informazioa ematen diegu, eta ondoren banan-banan probatzen joaten dira. Beste jende bat garestiena zein den galdetzen etortzen da, pentsatuz onena izango dela. Baina ez da hala; ez dago guztientzako moduko koltxoirik. Gaur egun, koltxoi biskoelastikoak daude modan.

Kanapeen eskaintza berezia daukate Gau-tu dendan



Kanape lege ezagutzen diren oheak daude modan gaur egun, Gau-tu dendako Leire Peña eta Ainhua Pinedak adierazi dutenez. Euren ere arlo horretan daukate eskaintza berezianak. “Kanapea, azkenean, etxean daukazun beste armairu bat da”, dio Pinedak. Koltxoia altxatu eta hainbat gauza gordetzeko aukera ematen dute era horretako oheek. Eskaintzan, zurezko zein larru-imitazioko kanapeak koltxoia gaur egun ematen dituzte. Bi materialak lau koloretan daude eskuragarri. Eskaintza aparte, banan-banan ere erosi ahal dira hainbat koltxoi eta oiha.

Lo egiteko arropen ere barietate zabala daukate. Gainera, burko biskoelastikoetan prezio erakargarriak ipini dituzte. Peñaren arabera, jendea oso pozik dago eskaintzekin: “Batzuek esaten digute guztia eroango luke-tela, prezio onak dauzkagulako”.

Atsedeen sistemak eta oiha-lak

gau-tu

Olleria 3, Durango - Bizkaia - Tel.: 94 655 07 00 - gau-tu@hotmail.com

Ametsetan? Egizu hegan!



Eroski Bidaiak-en badakigu txikieria bakoitzak garrantzi handia duela, zure oporrak ezin hobeak izan daitezen. Horregatik, den-dena zaintzen dugu: aurretik, bidaian zehar eta gero.

Orain, egin ezazu ametsetan. Askatu zure irudimena eta egizu hegan ametsen bidez nahi duzun tokiraino.

